



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 7a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/CCO-00027. “Corellako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/CCO-00027. “Corellako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Corellako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea “Corellako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA**ORRIALDEA**

I. SARRERA	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA.....	5
III.1 Legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia, aurkakoa	5
III.2 CMFren diru-sarrerei eta gastuei buruzko fiskalizazio finantzarioko iritzia, salbuespenduna	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	5
IV.1 Legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzi aurkakorako oinarria	5
IV.2 CMFren diru-sarrerei eta gastuei buruzko fiskalizazio finantzarioko iritzi salbuespendunaren oinarria	7
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	7
VI. BESTELAKOAK.....	8
VII. CORELLAKO UDALAREN ETA SAN JOSÉ ZAHARRENTZAKO EGOITZAREN ERANTZUKIZUNA	8
VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	9
IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	9
1. GEHIGARRIA. CORELLAKO UDALA.....	11
1.1 Informazio orokorra	11
1.2 Egindako jarduerak	12
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA	12
3. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA.....	13
3.1 Zapaltzeko makina ibilgailuaren erosketa-kontratua	13
3.2 CMF musika-jaialdia.....	13
4. GEHIGARRIA. LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	14
4.1 Udaleko langileak.....	14
4.2 Udalaren kontratazio publikoa.....	19
4.3 "Corella Music Fest" musika-jaialdia	26
4.4 Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako udal-gastuak.....	28
4.5 'San José Zaharrentzako Egoitza' erakunde autonomoa	30
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	35
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	38

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko azaroaren 20an eginiko bilkuran, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eskaerari jarraikiz, erabaki zuen “Corellako Udalaren 2022ko kontuen fiskalizazio-txostena” eskatzea Kontuen Ganberari. Eskaera horretan, talde parlamentarioak eskatzen zuen auditoretzan *“arreta berezia jartzea honako gai hauetan:*

- *“Corella Music Fest” jaialdia.*
- *Corellako Udalak emandako dirulaguntzen espedienteak.*
- *Corellako Udalaren kontratazio-espedienteak”.*

Eskaera horri erantzun emate aldera, Kontuen Ganberak 2024ko bere fiskalizazio-programan sartu zuen Corellako Udalaren 2022ko ekitaldiko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzen alorreko legedi-betetzearen auditoretza bat.

Landa-lana 2024ko urtarriletik martxora bitarte egin zuen hiru auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati-boen laguntzarekin.

Jarduketa horren emaitzak jakinarazi zitzaizkion Corellako Udaleko alkateari, alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, alegazioak aurkeztu ditu Corellako alka-teak. Alegazio horiek txostenean txertatu dira, Ganbera honek emandako erantzunarekin batera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Corellako Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez ager-zeko. Emandako datuek eta ehunekoek balio zehatz bakoitzaren biribiltzea adierazten dute beti, eta ez datu biribilduen batura.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea jarraian aipatzen diren arloetan Corellako Udalak eta haren erakunde autonomoak 2022ko ekitaldian egindako jarduerak bat datozen alderdi esan-guratsu guztietan aplikatzekoa den arau-esparruarekin.

Arlo hauek aztertu ditugu:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominetako ordainsarien azterketa, langileak hautatzeko proze-suen eta egonkortze-prozesuaren berrazterketa.
- Kontratazio publikoa: ekitaldian egindako esleipenak, munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez egindakoak barne, eta iraungitako kontratueterako prestazioak.
- Emandako dirulaguntzak.

Gainera, “Corella Music Fest” musika-jaialdiak (aurrerantzean, CMF) eragindako diru-sarrerak eta gastuak kuantifikatze aldera, diru-sarreraren aurrekontuko “Salmentak” aplikazioaren eta gastuen aurrekontuko “Corella Music Fest gastuak” aplikazioaren finantza-fiskalizazioa egin dugu.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 4. Gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak ere egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzen arloetan Corellako Udalak eta haren “San José zaharrentzako egoitza” erakunde autonomoak 2022ko ekitaldian egindakoari buruz.

Gainera, CMF musika-jaialdiak Udalarari eragindako diru-sarrerak eta gastuak kuantifikatze aldera, Udalaren 2022ko aurrekontuko “Salmentak” eta “Corella Music Fest gastuak” aurrekontu-aplikazioen finantza-fiskalizazioa egin du.

III.1 LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA, AURKAKOA

Gure ustez, gure txosteneko “Aurkako iritziaren oinarria” atalean azaldutako inguruabarren eragin nabarmena kontuan hartuta, langileriaren, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloetan Corellako Udalak eta haren mendeko erakunde autonomoak 2022ko ekitaldian gauzatuko jarduerak ez datoz bat funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

III.2 CMF-REN DIRU-SARREREI ETA GASTUEI BURUZKO FISKALIZAZIO FINANTZARIOKO IRITZIA, SALBUESPENDUNA

Fiskalizazioan hauteman dugu diru-sarreraren aurrekontuko “Salmentak” aplikazioan jasotako eskubide guztiak ez direla ekitaldi horretatik sortutakoak. Bestalde, 2022ko aurrekontuaren likidazioaren espedientean jasotako “Corella Music Fest gastuak” aplikazioko aitorturiko betebeharrak garbieraren zenbatekoak ez ditu barnean hartzen jaialdiaren ondorioz Udalak izan zituen gastu guztiak, ekitalditik sortutako zenbait betebeharrak ezeztatu eta aitortu baitziren 2023an, 2022ko eta 2023ko aurrekontuetara egotziak.

Hori kontuan hartuta, ondorioztatu dugu, txosten honetako “Iritziaren oinarria” atalean aipatutako norainokoaren mugaketaren balizko efektua salbu, 2022ko eta 2023ko ekitaldietan, orotara, CMFk 65.473 euroko diru-sarrerak eta 357.952 euroko gastuak eragin dizkiola Udalarari, txosten honen 4.3 gehigarrian azaltzen den eran.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolerako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan eta finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolerako organoen fiskalizazio-gida praktikoa (GPF-OCEX) erabili ditugu. Aurrerago deskribatzen da arau horien indarrez dugu erantzukizuna, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Entitatearekiko independenteak gara, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatutakoak diren eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria bilzen du legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko gure iritzi aurkakorako eta finantza-fiskalizazioari buruzko iritzi salbuespenderako.

IV.1 LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZI AURKAKORAKO OINARRIA

Honako urritasun eta ez-betetze nabarmen hauek ditu Udalak eta haren erakunde autonomoak langileriaren, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloetan egindako jarduerak:

Langileria

- Udalak ez du egin jendaurrekotasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarritutako hautaketa-prozedurarik Udaleko langileen aldi baterako 51 kontratazioetatik 18tan;

ekitaldian aldi baterako kontratatutako 31 pertsonetatik 11ri dagozkie kontratazio horiek. Txosten hau egiteko unean, kontratu horietako hiruk indarrean jarraitzen dute, eta dagoeneko bi urtetik gorako iraupena dute.

- Erakunde autonomoari dagokionez, sei langile-kontratazio aztertu ditugu (bi kontratazio mugagabe eta aldi baterako lau kontratazio), eta egiaztatu dugu horietako bat bera ere ez dela jendaurrekotasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarritutako hautaketa-prozedura baten ondorio, txosten honen 4.5.1 gehigarrian zehazten den eran.

Kontratazio publikoa

- San Frantzisko kalean Orube bat aparkalekutarako egokitzeko obra obra-proiektu egokirik gabe gauzatu zen, eta munta txikiko kontratuen araubidearen bidez esleitu ziren zenbait prestazio, 212.829 euroko gastu osoz; gure iritziz, unitate funtzional beraren inguruan biltzen dira horiek, eta, beraz, guztiak batera tratatu izan behar ziren. Kontratistetako baten gastua 117.586 eurokoa da, eta zenbateko hori dela-eta, hura banaka aintzat hartuta ere, ez da egokia munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez esleitzea kontratua.

- Inbertsioen kontratazioaren alorrean, Ombatillo kirol-hirirako aldagela-kabina batzuen eta landa zaintzarako ibilgailu baten erosketak esleitu zituen Udalak, 43.500 euroko (BEZik gabe) eta 32.231 euroko (BEZik gabe) zenbatekoz, hurrenez hurren, kontratuen balio zenbatetsiak zirela-eta zegozkion prozedurak izapidetu gabe.

- Zapaltzeko makina ibilgailuaren erosketara prozedura sinplifikatuaren bidez egin zen, 38.000 euroko (BEZik gabe) balio zenbatetsiz; bada, erosketara horretan, Udaleko barne-kontrolako organoek hauteman zuten prozeduran parte hartzera gonbidatuko ziren bost sozietateetako biren artean, eta, gero, eskaintza aurkeztu zuten bi sozietateen artean, lotura egon zitekeenaren zantzuak zeudela. Udalak ez zuen inolako neurririk hartu aztertzeko ea benetan lotura zegoen sozietateen artean; hala izanez gero, haien eskaintzak ez ziren onartu izango. Prozedura izapidetzen jarraitu zuen, eta sozietate horietako bati esleitu zion kontratua. Hori guztia jasota dago txosten honetako "Salbuespenei buruzko informazio gehigarria" gehigarrian.

- Udalak behar bezalako eta behar besteko aurrekontu-krediturik izan gabe egin zituen CMFrekin lotutako kontratazio guztiak. 2022ko aurrekontuan ez zegoen jasota inolako partidarik xede horretarako. Jaialdia baino bi egun lehenago xede horretarako 150.000 euroko ezohiko kreditu baterako izapideak abiarazi zituzten, baina ezohiko kreditu horren hasierako eta behin betiko onespenez ekitaldia egin ostean gauzatu ziren, eta kredituaren zenbatekoa ez zen nahikoa izan. Jaialdiaren gastuak kopuru horren bikoitza baino handiagoak izan ziren, eta ekitaldiaren amaieran, hari zegozkion lotura-poltsa 395.597 euroan gaindituta gelditu zen.

- Udalak prozedura administratiborik izapidetu gabe antolatu zuen CMF jaialdia, eta modu berean egin zituen harekin lotutako kontratazioak; gainera, iskin egin zuten barne-kontrolako mekanismoei, araudiak xedatzen duenaren kontra. Ez zen plangintzarik egin; ez zen idatzizko kontraturik sinatu ekitaldiaren antolaketan lagundu zuen eta leihatilako sarrera-salmenta eta jaialdiko ostalaritza-zerbitzuak kudeatu zituen enpresarekin, eta ez zen jarduera horien gaineko kontrol-mekanismorik ezarri; bada, hori guztia funts publikoak kudeatzen dituztenei eskatzekoa zaien diligenziaren kontrakoa da.

- Udalaren ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, gastuetako 1,71 milioi eurori eragiten dieten akatsak aurkitu ditugu –halako gastuen guztizko bolumenaren ehuneko 42 da hori–. Zehazki, 4.2.2 eta 4.2.3 gehigarrietan azaltzen den moduan, Udalak:

- 1,44 milioiko gastua egin zuen 36 kontratistarekin, hainbat prestaziorengatik, kontratuen balio zenbatetsiaren arabera legez eskatzen diren esleipen-prozedurak bete gabe. Horietatik, elektrizitate- eta gas-hornidurako kontratu bati dagozkio 505.999 euro.

- Bederatzi kontratutan gainditu egin da aurreikusitako gehienezko iraupena (luzapenak ere kontuan hartuta), eta kontratuok ez dira lizitatu. Kontratu horien prestazioek 286.658 euroko gastua eragin dute ekitaldian.

- Erakunde autonomoak zuzenean esleitu ditu kontratu guztiak, kontratazio publikoko araudia bete gabe. Zehazki, txosten honen 4.5.2 gehigarrian zehazten den eran, egiaztatu dugu erakunde

autonomoak 455.529 euroko gastua egin zuela 2022an 16 kontratistarekin hainbat prestazioren-gatik, kontratuen balio zenbatetsiaren arabera legez eskatzen diren esleipen-prozedurak bete gabe.

- Erakunde autonomoak gastuak egin ditu behar besteko aurrekontu-krediturik izan gabe. Ekitaldiko aitorturiko betebeharrak garbiak 1,61 milioi eurokoak dira; bada, zenbateko horrek ehuneko hamarrean gainditzen du gastu-aurrekontuko behin betiko kredituen guztizkoa.

Dirulaguntzak

- Udalak 30.000 euroko dirulaguntza izenduna eman zion Corellako Banda musika-taldeari bi ordainketatan, dirulaguntza emateko erabakian bigarren ordainketa egiteko baldintza gisa eskatzen zen dokumentazioa aurkezteko exijitu gabe. Geroago ere ez zuten aurkeztu dokumentazio hori, eta Udalak ez zuen inolako neurririk hartu horren inguruan. Dena den, gure fiskalizazioa dela bide, funtsen erabilera justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu du erakundeak.

- Udalak 27.775 euro eman zizkien zuzenean hamar entitate onuraduni dirulaguntzatan, kultura-, kirol- eta jai-jardueratarako, nahiz eta dirulaguntza horiek izendunak izan ez, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (aurrerantzean, DLO) dirulaguntzak zuzenean eman ahal izateko egoera gisa aurreikusitako beste edozein egoera bete izana egiaztatu gabe. Bi dirulaguntza eman ziren jaietako jardueratarako 10.000 euroko zenbatekoz, eta horietan ez da emateko erabakirik jaso, nahiz eta entitateek justifikatu duten funtsak xede horretarako baliatu dituztela.

IV.2 CMF-REN DIRU-SARREREI ETA GASTUEI BURUZKO FISKALIZAZIO FINANTZARIOKO IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIA

- Udalak ez du kontabilitatean jaso jaialdiko leihatilako sarrera-salmentatik sortutako diru-sarrerarik, ez eta jaialdian emandako ostalaritza-zerbitzuetatik sortutakorik ere. Ezin izan dugu behar bezalako eta behar besteko ebidentziarik lortu jarduera horietatik sortutako diru-sarrereri eta gastuei, kobrantzei eta ordainketei buruz, ez eta leihatilan saldutako sarrera kopuruari eta ostalaritzako zerbitzu horiek kudeatu zituztenekin Udalak adostutako baldintzei buruz ere. Beraz, ezin izan dugu ezer ondorioztatu jarduera horietatik sortutako eta Udalari legozkiokeen baina hark jaso ez dituen diru-sarrereri buruz.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko lege-betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu legedi-betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi berezirik adierazten.

Txosten honetako "Aurkako iritziaren oinarria" atalean azaldutako alderdiak alde batera utzita, erabaki dugu ez dugula gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berri eman beharrik.

VI. BESTELAKOAK

Barne-kontrola

Ganbera honi egokia iruditzen zaio aipatzea txosten honetan aipatutako hutsetako asko aurrez adierazi zituztela Udaleko kontu-hartzaileak eta idazkariak eragozpen-ohar eta txosten ugaritan. Zentzu horretan, adierazgarria da Udaleko kontu-hartzaileak gutxienez 34 eragozpen-ohar egin izana fiskalizatutako ekitaldian.

Alkatetzak ez du idatziz eman eragozpen-oharrak kentzeko ebazpenik. Edonola ere, Udaleko kontu-hartzailearen txosten bat aurkezten dio aldian behin osoko bilkurari, toki-entitateko lehen-dakariak hartutako aurkeztutako eragozpen-oharren kontrako erabakien zerrendarekin.

Nahitaezko lege-aholkularitzako eginkizunari dagokionez, hau azpimarratu nahi dugu: aztertutako zortzi kontratazio-prozeduretatik bostetan $-1,28$ milioiko zenbatekoa egiten dute guztira-, KPFLri jarraikiz nahitaez egin beharrekoak diren txosten juridikoak kanpoko lege-aholkularitzako etxe batek egin zituen, eta haietan ez dago jasota Udaleko idazkaritzaren adostasunik. Jarduteko modu hori uztailearen 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen (aurre-rantzean, TAFL) kontrakoa da, horrek idazkaritzaren esku uzten baitu nahitaezko lege-aholkularitzaren eginkizuna. Alabaina, Udaleko idazkariak prozedura horien izapideetan esku hartu du, eta haietako lautan gai jakinei buruzko txostenak jaulki ditu.

2022ko ekitaldiaren fiskalizazioan egin dugun lanaren esparruan, kontu-hartzaileak 2023an aurkeztutako eragozpen-oharren azterketa orokorra egin dugu. Azterketa horretatik ezin da ondo-rioztatu 2023an araudi-betetzea hobetu denik oro har gure fiskalizazioaren xede diren arloetan.

Horri dagokionez, Udaleko kontu-hartzaileak bi ekitaldi horietan egindako eragozpen-oharren laburpen-taula bat jaso dugu, kontu-hartzaileak berak emandako informazioarekin osatua:

Kudeaketa-arloa	Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa		Zenbatekorik ez	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Kontratazioa	24	15	2.328.606*	503.910	-	1
Langileak	2	6	-	-	2	6
Dirulaguntzak	7	7	120.900	71.700	-	-
Beste prozedura batzuk	1	2	30.516	-	-	2
Guztira	34	30	2.480.023	575.610	2	9

(*) 1,21 milioiri eragiten dien eragozpen-ohar bat hartzen du barnean.

VII. CORELLAKO UDALAREN ETA SAN JOSÉ ZAHARRENTZAKO EGOITZAREN ERANTZUKIZUNA

Corellako Udaleko alkateak, osoko bilkurak, tokiko gobernu-batzarrak eta zinegotzi ordezkariak bermatu behar dute Udalak gauzatzen dituen jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin. Era berean, haien erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezartzea, egindako jarduerak ez duela lege ez-betetzirik izanen bermatzekoak.

San José zaharrentzako egoitza erakunde autonomoan, gobernu-batzordeak bermatu behar du erakundeak gauzatzen dituen jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin. Orobat, haren ardura da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, egindako jarduerak ez duela lege ez-betetzirik izanen bermatzekoak; betiere, Udaleko kontu-hartzailezari legez dagozkion kontrol-eginkizunak eragotzi gabe.

VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioan, honako hauek dira gure helburuak: arrazoizko ziurtasun bat lortzea 2022ko ekitaldian Udalak gai fiskalizatuetan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Udalak CMFren harira izandako diru-sarrerei eta gastuei buruzko finantza-fiskalizazioan, gure helburua izan da diru-sarrera eta gastu horiri buruzko ondorioak ateratzea arrazoizko ziurtasunez.

Arrazoizko ziurtasuna ziurtasun-maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik ez-betetze esanguratsu bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze esanguratsuak izateko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretza-prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritziari oinarria emateko behar besteko eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko ez-betetze aipagarri bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizatorako esanguratsua den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolarik, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea prozedurak egokiak diren, eta ea kudeaketa-organismoak emandako informazioa arrazoizkoa den.

Entitatearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, honako hauek jorratze aldera: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun gabezia esanguratsu oro. Entitatearen gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion gorabeheren artean, zehazten dugu zein izan diren esanguratsuenak legedi-betetzearen fiskalizazioan, eta horrenbestez, auditoretzako gai giltzarriak.

IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Ganbera honek honako hau gomendatzen du langileriari, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko legedi-betetzearen fiskalizazioko lanaren emaitza gisa:

- *Langileen kontratazio guztiak araudian ezarritako hautaketa-prozeduren bidez egitea, jendaurrekotasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin bat, bai Udalean, bai erakunde autonomoan.*

- *Lizitazioak eta esleipenak prozedura egokiaren bidez egitea munta txikiko kontratuetarako araubide berezia erabili ahal izateko gehienezko mugatik gorako balio zenbatetsia duten kontratuetan, bai Udalean, bai erakunde autonomoan.*

- *Ez sortzea gasturik, baldin eta behar bezalako eta behar besteko aurrekonturik ez badago horiek finantzatzeko.*

- *Dirulaguntzen alorreko udal-araudia eguneratzea.*

- *Norgehiagokaren araubidearen bidez ematekoak diren dirulaguntzen deialdiak onestea eta argitaratzea urtero, baita oinarri arautzaile iraunkorrak onesten direnean ere, eta dirulaguntzak deialdian eta oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat izapidetzea.*

- *Dirulaguntzen onuradun diren entitateei justifikazio-dokumentazioa eskatzea oinarri arautzaileetan ezarritako moduan eta epeetan, eta jasota uztea dokumentazio hori aztertu dela, eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko eskatzea.*

- *Kontu-hartzaitzaren eragozpen-oharrak izapidetzea, halakorik balego, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoarekin bat, eta izapideak eta ebazpenak jasota uztea.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 4. Gehigarrian, zeinean biltzen baitira fiskalizazioaren beste ohar eta aurkikuntza batzuk.

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. CORELLAKO UDALA

1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Corella Nafarroako Erriberako udalerrria da. 81,1 km²-ko azalera du, eta 8.336 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal-antolamendua, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkatetzak. Gainera, zortzi batzorde informatibo daude.

Udalak erakunde autonomo bat dauka, San José zaharrentzako egoitza.

Udalak ez dauka haren mendeko merkataritza-sozietaterik.

Hauek dira 2022ko ekitaldia ixtean udaleko eta erakunde autonomoko datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak:

- Administrazio-sektore publikoa:

Entitatea	Aitortutako esku-bideak	Aitortutako bete-beharrak	Langileak, 2022-12-31n
Udala	11.875.978	10.736.450	72
San José zaharrentzako egoitza EA	1.592.993	1.610.236	38
Bateratze-doikuntzak	(440.000)	(440.000)	
Guztira	13.028.971	11.906.686	110

(*) Udalak emandako datuak.

2022an, Udalak 440.000 euro eman zizkion San José zaharrentzako egoitzari transferentzia arruntetan. Gainera, egoitzaren beste gastu batzuk aitortu ziren Udalaren aurrekontuaren kontura, 160.870 euroko zenbatekoz; horietatik, eragiketa arruntetakoak dira 48.534 euro (Udalak kontratatu dituen eta egoitza lan egiten duten langileak, nagusiki), eta kapital-eragiketakoak 112.336 (obrak).

Corella Errege Bardeako Komunitateko gozamen-kidea da, eta 400.000 euroko diru-sarrerak jaso zituen harengandik 2022an. Gainera, honako entitate hauetan parte hartzen du:

- Erriberako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baitira hondakinen bilketa eta tratamendurako zerbitzuak eta kale-garbiketako zerbitzua.

- Moncayoko Ur Mankomunitatea, ur-hornidurako zerbitzuak emateko.

- Ebroko Kirol Mankomunitatea, kirol-zerbitzuak emateko sortua.

• Nafarroako Erribera Garatzeko Estrategietarako Partzuergoko kidea da (EDER Partzuergoa). Honako hauek dira, besteak beste, horren helburuak: jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzea eta eragile ekonomiko eta sozialek eskualdeak dituen arazoak konpontzeko orduan parte-hartze aktiboa izan dezaten aldezte. Partzuergoa, estatutuek ezarri bezala, Tuterako Udalari atxikita dago.

- Nafarroako Toki Entitateen Jasangarritasunerako Sarea: toki-entitateen elkarte, tokiko garapen jasagarria sustatzea xede duena.

2022an, udalak entitate horiei eginiko transferentziengatik gastu aitortuek 45.782 euro egiten dute. Hona hemen xehetasunak:

	Udalaren transferentziak 2022an
Erriberako Mankomunitatea (txakurtegiaren kuota)	13.940
Moncayoko Ur Mankomunitatea	-
Ebroko Kirol Mankomunitatea	13.000*
EDER Partzuergoa	17.964
Nafarroako Toki Entitateen Jasangarritasunerako Sarea	878
Guztira	45.782

(*) Ondasun eta zerbitzuengatik gastu arruntak – 2. kapituluaren kontabilizatua.

1.2 EGINDAKO JARDUERAK

Honako hauek dira Udalak ematen dituen zerbitzuak eta horiek emateko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
	Udala	Erakunde auto-nomoak	Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	X			
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea				X
Kale-garriketa			X	
Uraren ziklo integrala				X
Hilerria	X			
Parkeak eta lorategiak	X			
Gizarte-zerbitzuak	X			
Kirol-instalazioak	X		X	
Kirola egitea sustatzea	X		X	X
Hirigintza	X			
Udaltzaingoa	X			
Ibilgailuak eremu publikotik kentzeko zerbitzua			X	
Kulturaren eta kultur ekipamenduen sustapena	X		X	
Gaztelekua	X		X*	
Musika-eskola			X	
Ikastetxe publikoen mantentze-lanak	X			
Berdintasunaren sustapena	X			
Zahar-etxea	X	X		

(*) Gaztelekuko taberna-zerbitzua.

2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hau da Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Foru araudia eta tokikoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontuaren exekuzio-oinarriak.
- Ordenantzak.

3. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

3.1 ZAPALTZEKO MAKINA IBILGAILUAREN EROSKETA-KONTRATUA

Zapaltzeko makina ibilgailu baten erosketa egin zen, 38.000 euroko balio zenbatetsikoa, prozedura sinplifikatuaren bidez, eta bidalitako bost gonbidapenetatik bi harremanetarako telefono-zenbaki bera eta helbide elektronikoko bera zuten bi enpresari bidali zitzaizkien; hortaz, lotura izan zezaketenaren zantzuak zeuden. Bi sozietate horietako batek bakarrik aurkeztu zuen eskaintza, eta esleipendun suertatu zen.

Prozeduran, bi eskaintza bakarrik aurkeztu ziren, biak ere pertsona fisiko berak sinatuak zegoen sozietateen ordezkari gisa; hortaz, lotura izan zezaketenaren zantzuak zeuden. Bi eskaintzetan proposatzen zen prezioaren zati bat gauzaz ordaintzea, Udalak bi ibilgailu emanez, pleguan aurreikusitakoaren arabera, eta bi eskaintzetan 5.000 euroan balioesten ziren ibilgailu horiek.

Eskaintzetako batean, eskaintako prezioa 44.500 eurokoa zen (gauzazko ordainketa kontuan hartuta). Prezio hori nabarmen handiagoa zen kontratuko balio zenbatetsia baino, eta eskaintza ez zen onartu arrazoi horregatik.

Esleipendun suertatu zen eskaintzan, eskaintako prezioa 42.000 eurokoa zen (gauzazko ordainketa kontuan hartuta); hori ere kontratuaren balio zenbatetsia baino handiagoa. Hortaz, eskaintza hori ere ez zen onartu behar, arrazoi horregatik, sozietateen artean lotura egon ala ez.

3.2 CMF MUSIKA-JAIALDIA

Udalak musika-jaialdi bat sustatu eta antolatu zuen, "Corella Music Fest" izenekoa; 2022ko azaroaren 5ean egin zen.

Aztertu ditugu espedientea, CMFri buruzko diru-sarrerak eta gastuak eta Udalak eta kontratistek helarazitako beste dokumentazio eta informazio batzuk, eta honako hau ondorioztatu dugu:

- Udalak ez zuen izapidetu jaialdia sustatzeko eta antolatzeko administrazio-prozedurarik. Aztertu dugun espedientea Udaleko idazkariak sortu zuen ekitaldia egin ostean, eskuragarri zegoen dokumentazioa bilduz.

- Udalean ez da jasota geratu jaialdiaren plangintzarik, ez eta bertaratuko zirenei, diru-sarrerei eta gastuei buruzko aurreikuspenik egin zenik ere.

- CMFa antolatzeko, enpresa espezializatu bat kontratatu zuen Udalak, eta enpresa horrek kudeatu zituen, orobat, ekitaldi-eguneko leihatilako sarrera-salmenta eta jaialdiko ostalaritza-zerbitzuak (taberna-barrak eta "foodtruck" direlako jaki-kamioiak). Enpresa horrekiko kontratua ez zen idatziz gauzatu; hori horrela, oso zaila da zer baldintza adostu zituzten jakitea, ea bete ziren kontrolatzea eta balizko erantzukizunak eskatzea. Gure ustez, kontratuaren xedearen izaera eta ezagugarriak kontuan hartuta, bai eta kudeatu beharreko funtsen bolumena, zeuden arriskuak eta balizko erantzukizunak ere, kontratua idatziz jaso behar zen

- Ekitaldiaren egunean sarrerak saldu ziren leihatilan, 50 euroan bakoitza.

- Udalak ez zuen inolako kontrol-mekanismorik jarri ez leihatilako sarrera-salmentaren gainean, ez ostalaritza-zerbitzuen gainean ere; beraz, ez du jarduera horiei buruzko informazio propiorik. Bi aldiz eskatu dio informazio hori zerbitzuak kudeatzeko kontratatutako enpresari, baina hark ez dio eman.

- Ezin izan dugu lortu behar bezalako eta behar besteko ebidentziarik Udalak jarduera horien-gatik jaso beharko zukeen diruaren zenbatekoari eta jomugari buruz. Alkateak esan digu ez duela ezer kobratu jarduera horietatik.

- Bai ekitaldiaren antolaketan lagundu zuen enpresak bai Udalak esan digute espero baino askoz ere ikusle gutxiago bertaratu zirela CMFra, baina ez dago ekitaldira benetan bertaratutakoei buruzko dokumentaziorik.

4.3 gehigarrian aurkezten dira gure azterketaren beste konklusio batzuk.

4. GEHIGARRIA. LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeen ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, informazio gehigarri zenbaitekin batera.

Orobat, gehitu ditugu Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetze aldera Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

4.1 UDALEKO LANGILEAK

Langile-gastuak 3,67 milioikoak izan ziren, ekitaldian sortutako gastu guztien % 34. Honako taula honetan ematen da gastu horren xehakapenaren berri:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (ABG), 2022
10. Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	59.543
12. Funtzionarioak	808.006
13. Lan-kontratudunak	1.137.182
14. Beste langile batzuk (gizarte-enplegu babestua)	60.528
15. Errendimendu-pizgarriak	26.959
16 Enplegatzailearen konturako kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	1.575.012
Guztira	3.667.229

(*) Barne hartzen du funtzionarioen Montepioaren kuota.

Plantilla organikoa

Udalaren 2022ko plantilla organikoaren behin betiko onespena 2022ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO) argitaratu zen, apirilaren 11koan.

Hona hemen lanpostuak, 2022aren amaieran indarrean zegoen plantillaren arabera:

Sailkapena	2022
Behin-behineko langileak	1
Funtzionarioak	30
Lan-kontratudunak	17
Guztira	48

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 63 funtzionario-araubidekoak dira, eta ehuneko 35, lan-kontratadunen araubidekoak.

Beste alde batetik, Udalak ez zuen argitaratu 2022ko abenduaren 31ko langileen zerrenda, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginak (aurrerantzean, LETB) eskatzen duen eran. Horren ordez, 2023ko otsailaren 15eko langile-zerrenda onetsi eta argitaratu zuen (2023ko 95. NAO, maiatzaren 8koa).

Langile-zerrenda horren arabera, honako hau zen lanpostuen egoera 2023ko otsailaren 15ean:

Langileak	2023/02/15eko egoera
Plantillako lanpostuak	48
Beteta	21
Hutsik	27
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	56
Bete diren lanpostu hutsak	19
Bete diren lanpostu hutsak (%)	70
Bete gabeko lanpostu hutsak	8
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	30

Plantillako lanpostuen ehuneko 56 hutsik zeuden; horietatik, ehuneko 70 behin-behinekoz beteta zeuden, eta gainerako ehuneko 30a bete gabe zeuden. Behin-behinekotasunaren indizea, behin-behinekoz betetako plazen eta modu finkoan nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa kalkulatu, ehuneko 48koa zen.

Plantilla organikoari buruz egin dugun azterketa eta argitaratutako langile-zerrenda kontuan hartuta, honako hutsegite hauek azpimarratzen ditugu:

- Polizia buruaren lanpostuaren ordainsariak mailari dagokion hasierako soldata eta osagarri gisa ezarrita daude, nahiz eta behin-behineko langileen araubidekoa den.
- Plazak ez dira kodez identifikatzen. Gainera, askotan, langileen izen-zerrendan, plantilla organikoan erabilitako lanpostu-izenak ez bezalako izenak erabiltzen dira. Hori horrela, zaila da jakitea zer plaza betetzen ari den langile bakoitza.
- Plantilla organikoarekin batera argitaratzen den langileen izen-zerrendak ordainsari-osagarriak lotzen ditu langile bakoitzarekin. Hiru kasu aurkitu ditugu, zeinetan izen-zerrendan langilea-ekin lotuta ageri diren osagarriak ez datozen bat plantilla organikoan dagokion lanpostuarekin lotutakoekin.
- Erakunde autonomoan lan egiten duten bi pertsona ditu kontratatuta Udalak.

Langileak hautatzeko prozesuak

2022an, Udalak ez du deitu langile-hautaketarako prozesurik, enplegu-egonkortzeko prozesutik sortutako ez gain; geroago hitz egingo dugu horiei buruz.

Udalak emandako informazioaren arabera, 2022an 42 langile-kontratazio egin dira guztira, 24 pertsonari dagozkienak (enplegu sozial babestuko proiektuekin lotutakoak kanpoan utzita).

Langile horiek hautatzeko erabilitako prozedurei buruzko informazioa eskatu dugu, eta lau pertsonari dagozkien hamar kontratazioko lagin bat aztertu dugu.

Gure azterketan, txosten honetako "Aurkako iritzia oinarria" atalean adierazitakoaz gain, egi-aztatu dugu Udalak aldi baterako kontratatu zuela urte naturalarekin bat zetorren aldirako 2019ko maiatzaz geroztik kontratuak kateatuz egondako langile bat, eta ez zegoela inon jasota hautatzeko prozedurari buruzko informaziorik. Gainera, haren lanpostua ez zegoen jasota plantilla organikoan. 2023koan sartu zen. 2023an, berriz kontratatu zuten langilea, eta txosten hau egiteko unean, kontratatuta jarraitzen du; antzintasuna, guztira, lau urtetik gorakoa du.

Enplegu publikoaren egonkortze-prozesua

Enplegu publikoaren egonkortze-prozesua aztertu dugu, ikusteko ea bete diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan, ezarritako betekizun eta epeak. Corellako Udala, 2022ko urriaren 13ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, partzialki atxiki zen foru lege horren II. Tituluan jasotako erregulaziora.

Gure azterketatik, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Udalak lanpostuak egonkortzerako enplegu-eskaintza publiko bat onetsi zuen (aurrerantzean, EEP) lege horretarako aurreikusitako epean, zeina 2022ko maiatzaren 24an argitaratu baitzen NAO. 44 plaza hartzen zituen barnean guztira; horietatik, Udalarari zegozkion 21, eta erakunde autonomoari 23. Aurrerago hitz egingo dugu azken horiei buruz.
- Udalarari dagozkion 21 plazetatik, 18 merezimendu-lehiaketa bidez beteko ziren, eta beste hirurak, oposizio-lehiaketa bidez.
- EEPan sartutako plazen lagin bat aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu oro har betetzen dituztela araudian ezarritako baldintzak.
- Plaza horiek betetzeko onetsitako deialdiak 2022ko 253. NAO. n argitaratu ziren, abenduaren 19koan, lege horretarako aurreikusitako epearen barruan.
- Udaleko idazkariak jakinarazi duenez, ez da aurkeztu ez administrazio-errekurtsorik ez errekurtsu judizialik Udaleko enplegu publikoaren egonkortze-prozesuarekin lotuta.
- Honako hau da deialdien egoera txosten hau idazteko garaian:

Hautatze-sistema	Deialdia amaituta	Aribidean	Hasteko zain	Deitutako plazak, guztira
Merezimendu-lehiaketa	17	1	-	18
Oposizio-lehiaketa	-	3	-	3
Udaleko plazak, guztira	16	5	-	21

Merezimendu-lehiaketako deialdietan, egiteko dago plaza baten izendapena. Oposizio-lehiaketako prozesuei dagokienez, 2023ko apirilean onetsi ziren onartutako pertsonen behin betiko zerrendak.

Enplegu-egonkortzeko hautapen-prozesu horiek bukatuta egon behar dute 2024ko abenduaren 31 baino lehen, data horretarako bete behar baita lege aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak egiturazko plazen ehuneko 8ra murriztea. Hori horrela, ez dugu egiaztatu ea bete den helburua.

Langileria-gastuari buruzko egiaztapenak

2022an Udaleko langileei aplikatzekoak zitzaizkien ordainsari-baldintzak plantilla organikoan zehaztuta zeuden nagusiki, "Corellako Udaleko lan-kontratupeko langileentzako hitzarmen kolektiboa" (2020-2023) dokumentuan, 2021eko otsailaren 9ko NAO. n argitaratuan, eta "Corellako Udalararen langile funtzionarioentzako Erabakia" (2016-2019) dokumentuan, 2017ko ekainaren 16ko NAO. n argitaratuan.

2022ko urrian sortutako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu, guztira 60 pertsonari dagokiena eta 121.947 euroko zenbatekoa duena. Zenbateko horrek hilabete horretako nominaren guztizkoaren ehuneko 77 egiten du. Honako hauek izan dira aztertutako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	77.118
Antzinasuna	5.752
Gradua	6.027
Postuko osagarria	162
Bateraezintasun-osagarria	2.118
Burutzako osagarria	1.065
Lanpostuko osagarria	15.394
Mailako osagarria	5.303
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	2.078
Berriarazko osagarria	6.650
Poliziaburuaren osagarria	282
Guztira	121.947

Aipatutako azterketatik ondorioztatu dugu, oro har, nominan kontzeptu horiengatik jasotako ordainsariak bat datozela plantilla organikoan horiei dagozkien lanpostuetarako aurreikusitakoekin. Dena den, hutsegite hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Lan-araubidean aldi baterako kontratatutako bi pertsonaren kasuan, haien ordainsariak kontratuaren arabera dira, baina ez datoz bat plantilla organikoan lanpostu horietarako ezarritakoekin.

- Bost langile funtzionarioek absentismo-ezaren osagarri bana jaso dute¹. Ordainsari-kontzeptu hori ez dago aurreikusita LETBean, baina bai “Corellako Udalaren langile funtzionarioentzako Erabakia” (2016-2019) dokumentuan, fiskalizatutako ekitaldian aplikatutakoan, bai eta geroago 2020-2023 aldirako onetsitakoan ere –atzeraeraginez onetsia–; azken hori aurkaratua izan da, aurrerago adieraziko dugun eran.

Beste alde batetik, deigarria da aparteko orduen kopurua. Udalak emandako informazioaren arabera, 2022ko ekitaldian, 34 udal-langilek 54.392 euro jaso zituzten ordainsaritan, 3.525 aparteko orduri zegozkienak²; bada, ordu horien ehuneko 88 poliziarenak eta brigadarenak dira. Udalak kontratatuta dituen 15 pertsonak, gutxienez, lan-arauegian jasotako aparteko orduen urteko muga gainditu dute, 80 ordutan ezarrita dagoena. Jasotako konpentsazio ekonomikoa 186 aparteko ordudua izan da batez beste, eta plazetako batean 723 aparteko orduren ordainsariak eman dira.

Egoera hori ez zen aparteko baldintzetatik sortua. Hain zuzen ere, Udalak jakinarazi duenez, 2023an ordaindutako aparteko orduen guztirako kopurua 5.202 ordudua izan zen, eta gutxienez 19 pertsonak gainditu zuten urteko 80 aparteko orduen muga.

2022ko urriko nominan aparteko orduengatik ordainsariak jaso zituzten bost pertsonako lagin baten ordainsariak aztertu ditugu, eta hutsune hauek nabarmendu nahi ditugu.

- Ez dago jasota organo eskudunak aparteko orduetarako alde aurreko baimena eman denik. Gerora, ez dira ebazpen bidez onetsi, nahiz eta alkateak aparteko orduen parteak sinatu dituen.

- Ezberdintasunak daude aparteko orduengatik ordainsariak kalkulatzeko erabilitako egoera-orrien eta ordu-kontrolerako sistema informatikoko erregistroen artean.

- Ordu-kontrolerako programa informatikoa gaizki erabili denez, askotan ezin dira kontrolatu benetan egindako aparteko orduak, eta, batzuetan, ezin da jardunaldi arrunta bete denik egiaztatzen.

- Poliziak erabilitako parteko orduen egoera-orriak ez du eguneko aparteko orduen xehetasuna jasotzen; hileko guztizko orduena bakarrik jasotzen du.

¹ Laneko bajak edo istripuak direla-eta lanera joan gabe gelditu ez diren langileei ematen zaie.

² Egindako aparteko orduei buruz ematen dugun informazio guztia konpentsazio ekonomikoa eragin dutenei buruzkoa da; ez dira aipatzen lanik gabeko denboraren bidez konpentsatu direnak.

Zerbitzu anizkUNETako langileek lanaldiaren luzapeneko osagarri bat jasotzen dute, ehuneko hamarrekoa, haien urteko lanaldia (1.728 ordu) oro har ezarritako lanaldia baino ehuneko bederatz handiagoa delako. Gainera, aparteko orduak egiten dituzte.

Geroagoko gertaera: langile funtzionarioentzako erabakia, 2020-2023

2023an, "Corellako Udalaren langile funtzionarioentzako Erabakia" izenpetu zuten, 2020-2023 aldian indarrean egongo dela dioena; 2023ko 226. NAO n argitaratu zen, urriaren 31koan. Erabaki hori ez da Osoko Bilkuraren esku jarri, berretsi dezan.

2023ko abenduan, Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak Udalari eskatu zion ezeztatu zitzala erabaki horretako artikulua jakin batzuk, horiek onetsita Udalaren eskumen-esparrua gainditu zelako, gai hauetan, besteak beste: langile funtzionarioen aparteko orduen ordainsariak, "absentismo-ezaren osagarria", baimenak eta erretiro partziala. Txosten hau egin denean, Udalak ez du eskakizun hori bete.

Nafarroako Gobernuak langileen erabakia aurkaratu zuen administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean 2024ko otsailean.

Egin dugun fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuek gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Udaleko plantilla organikoa zehatz-mehatz berraztertzea, eta lanpostu bakoitzerako izen egokia eta dagozkion plazak identifikatzeko kodeak zehaztea.*

- *Berrazterketa horretan, ordainsari osagarri berberak ezartzea lanpostu baten plaza guztientzat; izen bera duten plaza guztiek lanpostuari dagozkion ordainsari osagarri berak izan behar dituzte, ez badira plantilla organikoan bertan osagarri desberdinak ezarri funtzio desberdinak esleituta dituztelako.*

- *Behin-behineko langileen ordainsariak kopuru orokor gisa zehaztea; ulertuko da kopuru horretan sartuta daudela ordainsari-kontzeptu guztiak; hori horrela, langile horiek ez dute beste ordainsaririk jasoko beste edozein kontzeptugatik (adibidez, mailako soldata, osagarriak, aparteko orduak, guardiak, etab.).*

- *Plantilla organikoan zehaztea zer zerbitzuri dagozkion jardunaldi-luzapeneko osagarriak.*

- *Urte bakoitzeko abenduaren 31ko langileen zerrenda idaztea, eta kode egokiaren bidez identifikatzea langile bakoitzaren plaza.*

- *Lan-kontratuetan lanpostua plantilla organikoko izen berarekin identifikatzea, eta ordainsarien araubidea hitzarmenean edo plantilla organikoan ezarritakoarekin lotzea.*

- *Langile funtzionarioentzako eta administrazio-kontratadunentzako lan-baldintzei buruzko erabakien edukia Udalaren eskumenerako gaietara mugatzea, eta erabakiok Osoko Bildurari igortzea berretsi ditzan, argitaratu eta aplikatu aurretik.*

- *Behar diren antolaketa-neurriak aztertzea eta hartzea aparteko orduen kopurua murrizteko, kontuan hartuta salbuespenekoak direla, eta araudian ezarritako muga barnean erabili behar direla.*

- *Erregelamendu bidez arautzea ordu-kontrolerako sistemaren erabilera, bai eta aparteko orduen kudeaketa-prozedura ere.*

- *Langile-kontratazioak Udalaren edo erakunde autonomoaren aldetik egitea, dagokionaren arabera, kontratatutako pertsonak entitate batean ala bestean lan egiten duen kontuan hartuta.*

4.2 UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 4,06 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 38 egiten dute; hona hemen xehetasunak:

Artikulua	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
20. Errentamenduak eta kanonak	50.417
21. Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	688.117
22. Materiala, hornidurak eta beste	3.257.303
23. Zerbitzuaren ondoriozko gastuen kalte-ordainak	6.612
24. Argitalpen- eta banaketa-gastuak	3.025
25. Administrazio publikoek eta beste entitate publiko batzuek eginiko lanak	55.131
Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak, guztira (2. kapitulua)	4.060.605

Bestalde, 2022ko inbertsio errealetako gastuak 1,98 milioikoak izan ziren guztira. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko 18 egiten du, jarraian azaltzen den moduan banatua:

Artikulu ekonomikoa	Aitortutako betebehar garbiak (ABG), 2022
60. Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	253.140
61. Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunak lehengoratzeko inbertsioak	423.523
62. Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	208.027
63. Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako lehengoratzeko inbertsioa	827.735
64. Ezin ukitutako inbertsioetan egindako gastuak	76.279
68. Ondare-ondasunen inbertsioetan egindako gastuak	180.191
69. Herri-ondasunetan egindako inbertsioak	12.249
Inbertsio errealetan egindako gastua, guztira (6. kapitulua)	1.981.143

Gastu-aurrekontuko 2. kapituluaren aurrekontu-gauzatzea ehuneko 113koa da, eta 6. kapituluarena, ehuneko 50ekoa. Hori horrela, 2. kapituluari dagokionez, Udalak betebeharrak sortu ditu horretarako behar bezalako eta behar besteko krediturik izan gabe. Zehazki, erabilgarri zegoen kreditua gainditu da lotura juridikoko hiru poltsatan, 509.235 euroko zenbatekoz guztira.

Arlo honetan egin dugun lanaren esparruan, honako hauek aztertu ditugu: munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaz bestelako prozeduren bidez esleitutako kontratuak, ea zuzen erabili den araubide berezi hori gastu-aurrekontuko 2. eta 6. kapituluei dagozkien kontratuen esleipenean eta 2022an egindako prestazioak, kontratua iraungita zutenak.

4.2.1 Esleitutako kontratuak (munta txikiko kontratueterako araubide berezikoak salbu)

2022an, Udalak 12 kontratu esleitu ditu munta txikiko kontratueterako araubide bereziaz bestelako prozeduren bidez. Kontratu horien esleipen-prezioen batura 1,72 milioi da.

Zortzi kontratuz osatutako lagin baten lizitazioa, esleipena eta exekuzioa aztertu ditugu; zortzi kontratu horien guztizko esleipen-prezioa 1,51 milioikoa da. Hona hemen xehetasunak:

Kontratua	Mota	Esleipen-prozedura	Lizitazio-tzaile kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa ¹	Esleipen-prezioa ¹	Beharpenaren %
A. Erabilera anitzeko igerilekua eraikitze kontratua	Eraikuntza-lana	Irekia	1	999.539	979.548	2,0
B. "Corellako udal-kiroldegiko irakaspenera igerilekuaren ontzia berrikuntza exekuzio-proiektua" izeneko proiektuan jasotako obrak kontratatzea	Eraikuntza-lana	Irekia	1	165.168	160.000	3,1
C. Kirol-igerilekua eraistea	Eraikuntza-lana	Sinplifikatua	3	148.165	139.000	6,2
D. Erabilera anitzeko igerilekua eraikitze exekuzio-proiektuaren idazketa	Zerbitzua	Sinplifikatua	2	58.800	58.000	1,4
E. Corellako kanpo-argiztapenerako argiak eta monitorizazioa	Hornidura	Sinplifikatua	2	55.371	55.155	0,4
F. María Teresa pareka egokitzeko kontratua	Eraikuntza-lana	Irekia	1	47.561	47.561	0,0
G. Zapaltzeko makina ibilgailu erabili bat erostea	Hornidura	Sinplifikatua	2	38.000	42.000 ²	-10,5
H. Erabilera anitzeko igerilekua eraikitze obraren zuzendaritza	Zerbitzua	Sinplifikatua	3	31.125	24.903	20,0
Guztira				1.543.729	1.506.167	

(1) BEZa kanpo

(2) Nafarroako Kontratazioaren Atarian, 37.000 euroko zenbatekoa dago jasota; dirutan egindako ordainketaren zenbatekoa, alegia. Baina, horrez gain, gauzatan ere egin zen beste ordainketa bat, ondasunak emanez; eskaintza esleipendunetan 5.000 euroan balioetsita zeuden ondasun horiek, eta espedientean jasota dagoen behar-txostenean, berriz, 2.000 euroan.

Kontratu horiek bost kontratistari esleitu zitzaizkien; izan ere, A, B eta C kontratuak kontratista berarekin dira, eta gauza bera gertatzen da D eta H kontratuekin.

Lagin horren azterketatik, honako akats orokor hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Bost prozeduratan (A, C, D, E eta G), kontratuen esleipena arautzen zuten pleguetan prezio-irizpidea baloratzeko ezarritako formulak ez zituen modu linealki proportzionalen ematen puntuak. Gainera, formula horrek puntuak ematen dizkie lizitazioaren zenbatekoan beharpenik egiten ez duten eskaintzei ere; hori horrela, lizitazioan ez daude jokoan prezioa irizpiderako ezarritako puntu guztiak. Horrek modu ez oso gardenean murrizten du prezioaren irizpide horrek gainerako esleipen-irizpideekin alderatuta duen garrantzi erlatiboa, eta beraz, formula objektiboen bidez ebaluatze modukoak diren irizpideena, kualitatiboak direnekin alderatuta.

- Zortzi esleipenetatik sei (A, C, D, E, G eta H) ez ziren Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu. 2024ko urtarrilean argitaratu dira, gure fiskalizazioaren ondorioz.

- Aztertu ditugun lau obra-kontratuetan, balio zenbatetsian ez zegoen jasota kontratuaren balizko aldaketaren zenbatekorik. Alabaina, prezioen goranzko desbideratzeak ordaindu zitzaizkien kontratistari, esleipen-prezioaren ehuneko zazpi eta ehuneko hamar bitartekoak, kontratua aldatzeko espediente egokia izapidetu gabe, KPFLn xedatutakoaren kontra.

- Aztertutako kontratuetak bakar batean ere ez du egiaztatu Udalak ea bete diren izaera sozialeko esleipen-irizpideengatik puntuak ematea eragin zuten konpromisoak; edonola ere, irizpide horiek ez ziren erabakigarriak izan kontratistaren aukeraketan.

- Ez da jasota geratu Udalak egiaztatu duenik ea bete diren eskakizun sozialak, ingurumene-koak edo genero-berdintasunekoak, exekuzio-baldintza berezi gisa ezarritakoak. Kontratuaren exekuzioaren ebaluazioaren txostena ere ez du egin, KPFLn eskatzen dena.

Beste alde batetik, kontratazio-espeditate jakinei buruzko akats hauek aipatuko ditugu:

- Erabilera anitzeko igerilekua eraikitzeke kontratuan ez dago obra-hartzearen akta sinaturik. 2023ko ekainaren 12an, udal-arkitektoak igerilekuak irekitzeko ziurtagiri tekniko eman zuen, eta konpondu beharreko zenbait alderdi aipatzen ziren hor. Igerilekuak jendearen erabilerarako ireki ziren, baina, txosten hau egin den unean, aipatutako alderdi horietako bakar bat ere ez da konpondu, Udalak jakinarazi duenez.

- Erabilera anitzeko igerilekua eraikitzeke kontratuan eta irakaspenera igerilekua berritzeko kontratuan, atzerapenak egon ziren. Bada, pleguei jarraikiz, atzerapenak kontratistei egozteko modukoak izanez gero, hutsegite “oso larri” gisa kalifikatu behar ziren, eta zigorrak ezarri beharko ziren, esleipen-zenbatekoaren ehuneko bostekoak gutxienez. Udalak ez zuen zigorrak ezarri, eta ez da erabaki hori justifikatzeko arrazoirik jasota geratu. Atzerapenen arrazoi gisa, lehenengo kasuan, bi azpikontrataren langile-eskasia aipatzen da obra-zuzendariaren txostenean, eta bigarren kasuan, hornidurekin eta azpikontrata batekin lotutako ezustekoak eta atzerapenak.

- Kirol-igerilekua eraisteko kontratuaren exekuzioa 2022ko urriaren 10ean hasi zen, pleguan ezarritako behin betiko bermea eratu zela egiaztatu gabe, eta kontratua sinatu gabe (13an sinatu zen) eta zuinketa-akta jaulki gabe (19an sinatu zen), KPFLn xedatutakoaren kontra. Gainera, onetsi gabe zegoen osasun- eta segurtasun-plana, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan eskatutakoa, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenean, pleguan eta errege dekretu horretan xedatutakoaren kontra.

- Erabilera anitzeko igerilekua eraikitzeke exekuzio-proiektua idazteko kontratuaren esleipen-prozeduran (D), prezioa irizpidearen balorazio-formulak puntuak ematen zizkien lizitazioaren zenbatekoan beharpenik egiten ez zuten eskaintzei ere. Hori horrela, baxuegiak ez ziren eskaintzetan, formula objektiboen bidez ebaluatzeko modukoak ziren irizpideen ondorioz jaso zitekeen gehieneko puntuazioaren alde puntuazio posibleen zerrendako ehuneko 31koa zen; KPFLn ezarritako ehuneko 50eko gutxienekoa baino txikiagoa beraz.

- Plegu horri berari dagokionez –kanpora atera zen haren lanketa–, honako hau zioen Udaleko arkitektoaren txosten batek: “ez du zehaztasunez adierazten zer behar dituen Udalak igerilekuen multzoarekin oro har, eta, zehazki, kontratatuko den proiektuari dagokionez”. Proposamenak aurkezteko epea bost eguneko izan zen; prozedura sinplifikatuetarako lege eskatzen den gutxieneko epea, hain zuzen ere.

- Erabilera anitzeko igerilekua eraikitzearekin lotutako kontratuen esleipen- eta exekuzio-prozesuetan (A, C, D eta H), nolabaiteko presa adierazten duten zenbait alderdi hauteman ditugu, Udalak obrak uda-garaia hasi baino lehen bukatzeko zuten interesaren ondorioz sortutakoak. Interes hori arrazoizkoa da. Alabaina, esleipen-prozedurak 2022ko irailaren eta abenduaren artean egin ziren. Plangintza on bat egin izanez gero, esleipenak lehenago izapidetu ahal izango ziren, eta epe luzeagoak ezarri ahal izango ziren proposamenak aurkezteko eta kontratuak exekutatzeko. Gainera, kontratuen esleipenean, pisu handiagoa eman ahal izango zitzaiokeen prezioaren irizpideari, exekuzio-epearen irizpidearen aldean, eta horrek hobekuntzak ekarri izango lituzke kontratuzko konkurrentzia- eta efizientzia-printzipioei dagokienez.

- Argien hornidura-kontratuan, ez da jaso harrera-aktarik, pleguan ezarritakoaren kontra; edonola ere, jasota dago argiak aldatzeko lanak egin izanaren ziurtagiria.

4.2.2. Munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez egindako esleipenak**Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa**

Koadro honetan adierazi da zenbat kontratistarekin aitortu dituen betebeharrak Udalak gastu-kapitulu honetan 2022an, zenbatekoen arabera xehatuta:

Gastua, guztira (2022)	Kontratista-kop.	Zenbatekoa
15.000 euro + BEZa baino gehiago	46	2.780.847
3.750 euro + BEZa eta 15.000 euro + BEZa artean	86	812.469
3.750 euro + BEZa baino gutxiago	384	467.289
Guztira	516	4.060.605

72 kontratistako lagin bat aztertu dugu, 3,07 milioiko gastu-bolumena guztira; hau da, kapitulu osoaren ehuneko 75. 15.000 eurotik (gehi BEZa) gorako gastua duten kontratista guztiak eta 3.750 eta 15.000 euro bitarteko (gehi BEZa) gastua duten 26 kontratista sartu ditugu laginean.

Egiaztatu dugu badirela munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez esleitutako kontratuak, nahiz eta horien balio zenbatetsiak gainditu egiten dituen araubide berezi horren erabilerari ezarritako mugak. 36 kontratistarenak dira, eta horien gastu-bolumena 1,44 milioikoa da guztira, hurrengo orrialdean jasotako xehetasunen arabera.

Prestazioaren deskribapena ¹	Gastua (2022)
Argindarraren eta gasaren hornidura	505.999
Ikastetxe publikoaren garbiketa-lanak ²	115.192
Aholkularitza juridikoa	74.937
Kimaketa eta lorezaintza (A kontratista)	62.804
CMF: musika-emanaldia (faktura bat)	53.240
Zenbait ikastetxetarako gasolioa	42.996
CMF: iglu-karparen alokairua (faktura bat)	39.975
Kultur etxearen garbiketa-lanak (A kontratista)	39.458
CMF: segurtasun-zerbitzuak (faktura bat)	36.443
CMF: ekipo teknikoak (30.589 euroko faktura bat hartzen du barnean)	36.058
CMF: musika-emanaldia (faktura bat)	33.275
Telefonia-zerbitzuak	25.858
Igerilekuko belar-lanak (A kontratista)	24.194
Poliziaren jantziak	23.686
Ikastetxean argiak ordezteak	21.318 ³
Web-orriaren mantentze-lanak	20.284
Udal-ibilgailuen mantentze-lanak	20.038
CMF: musika-emanaldia (faktura bat)	19.965
Zezenketen antolaketa (Villarreko Ama Birjina) - errekontadoreak	18.090
Kultur etxearen atezaintza	16.149
Udako ludoteka	16.074
Jaietarako komunak alokatzea	15.711
Kirol-instalazioetako erreserbak kudeatzea eta abonua saltzea	15.369
Soinu-ekipoak alokatzea zenbait ekitalditarako	14.496
Kopiagailuen "renting"-a	14.172
Udal-programazioaren zenbait horma-irudi diseinatzea (B kontratista)	13.945
Ibilgailuetarako gasolioa eta gasolina	12.173
"Agroalhama Ribera" proiektuaren koordinazioa	12.110
Desfibriladoreen alokairua eta mantentze-lanak	11.624
Haur-parkeen mantentze-lanak	10.257
Esku-hartze arkeologikoa Corellako "El Plantío" aztarnategian	9.934
Argazki- eta bideo-zerbitzuak zenbait ekitalditan	8.379
Sare sozialen administrazioa (B kontratista)	8.107
Garbiketa-lanak parke eta lorategietan (A kontratista)	7.821
Zaintza-zerbitzua igerilekuetan	7.563
"Vives Emplea" programaren garapena	7.259
Ikastetxeko, kultur etxeko eta liburutegiko igogailuen mantentze-lanak	7.223
Hirigintzako webgunea eta beste zenbait diseinatzea eta mantentzea (B kontratista)	6.219
Kontsumitzailearentzako arreta-zerbitzua	5.915
Publizitate-zerbitzuak	5.360
Su-itzalgailuen mantentze-lanak	5.276
Guztira	1.444.945

(1) Ikusi dugu bi kontratistak zerrenda honetan jasotako prestazio bat baino gehiago egin dituztela.

(2) Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitu da 2023an.

(3) Horiei 10.477 euro gehitu beharko litzaizkieke kontzeptu beragatik; 6. kapituluaren kontabilizatuta daude.

Musika-emanaldiei dagozkien CMFaren hiru kontratuak, guztizko zenbatekoa 106.480 eurokoa dutenak, prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango ziren, lizitazio-deialdirik gabe, lehia posible ez den kasuetarako KPFLn aurreikusitako ohiz kanpoko tratamenduaren arabera. Alabaina, ez zen kontratazio-espeditierik izapidetu, eta ez zen egin ohiz kanpoko tratamendu hori aplikatzeko legez eskatzen den justifikazio-txotena.

Beste alde batetik, honako akats hauek hauteman ditugu gure landa-lanean:

- Titulartasun pribatuko higiezin baten eraispena esleitu eta hasi zen, erortze partziala zela-eta, zegokion aurri-adierazpeneko espeditiea izapidetu gabe. Udal-arkitektoak txostena eman

zuen xede horrekin 2022ko irailaren 1ean. Idazkaritzako txostenean jasota dagoenaren arabera, hilaren 6an, aurri-espeditatea ireki gabe, jada hasita zegoen eraispena. Ez da jasota geratu higi-ezinaren jabeari jakinarazpenik egin zitzaionik edo entzunaldirik eman zitzaionik eraispena hasi baino lehen, araudian ezarritakoaren kontra, ez eta inolako komunikaziorik zuzendu zitzaionik ere. Orobat, ez da agerian geratu eraispena gauzatzeko premia zegoenik edo haren atzerapenak arris-kurik ekarri izango zukeenik. 2023ko abuztuan aurkeztutako berraztertze-errekurtsoan, jabeek azaltzen dute “dei ugari” egin dituzten arren inoiz ez dutela erantzunik jaso³.

- Udalak ez zuen zegokion espeditatea izapidetu San Migel jaietako ikuskizunen antolaketa-rako kontratua aldatzeko. Aldaketa horrek gastuaren hazkundera ekarri zion Udalari, kontratuko esleipen-prezioaren ehuneko 16koa, kontuan hartuta kontratistari egindako ordainketaren hazkun-dea (10.000 euro gehi BEZa) eta Udalak bere gain hartu izana lehen kontratistaren konturakoak ziren prestazioak, 3.925 euroko gastua eragin zutenak.

Beste alde batetik, egiaztatu dugu Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren kontratua, ekitaldian 6.239 euroko gastua eragin duena –aurrekontuko 1. kapituluaren kontabilizatu dira–, ez dela lizitatua izan, KPFLn eskatutakoaren kontra, aurreko ekitaldietan oinarrituta kalkulaturako ba-lio zenbatetsiaren arabera.

Inbertsio errealeen kontratazioa

Koadro honetan adierazi da zenbat kontratistarekin aitortu dituen betebeharrak Udalak gastu-kapitulu honetan 2022an, sortutako betebeharren bolumenak zenbatekoen arabera xehatuta:

Gastua, guztira (2022)	Kontratista-kop.	Zenbatekoa
40.000 euro + BEZa baino gehiago	10	1.213.642
15.000 euro + BEZa eta 40.000 euro + BEZa artean	12	365.914
15.000 euro + BEZa baino gutxiago	78	401.587
Guztira	100	1.981.143

23 kontratistaz osatutako lagin bat aztertu dugu, ekitaldian 15.000 euro gehi BEZa baino gastu handiagoa eragin duten guztiak barnean sartuta. Lagin horren gastua 1,60 milioikoa izan da, eta kapituluaren guttizkoaren ehuneko 81 egiten du horrek.

Txosten honen “Aurkako iritziaren oinarria” atalean jaso ditugu azterketaren ondorio nagusiak.

Kontratazioak argitaratzea

Udalak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu zituen munta txikiko araubide bereziaren bidez adjudikatutako kontratuen zerrendak, baina ez hiru hilean behin, KPFLk eskatzen duen eran.

³ Irailaren 5ean, hirigintza-atalari posta elektroniko bidez jakinarazi zitzaion jabeek gaiari buruzko informazioa eskatzen zutela, eta harremanetarako telefono-zenbaki bat eman zutela horretarako. Ez da jasota geratu eskaera horri erantzun zi-tzaionik.

4.2.3 Kontratu iraungia duten prestazioak

Udalak emandako informazioaren arabera, 2022an bederatzik kontratu zeuden gehieneko iraupena (luzapenak barne) gaindituta zutenak eta lizitatu gabe zeudenak. Hauexek dira:

Kontratuaren xedea ¹	Ordain- dutako gastua (2022)	Kontratuaren amaie- ratik metatutako gas- tua 2022/12/31ra arte	Kontratuaren amaiera-data (lu- zapenak barne)
Igerilekuetako atezaintza eta garbiketa-lanak (C hornitzailea)	99.795	255.275	2020/06/01
Neguko kirol-monitoreak	68.573	91.510	2021/05/31
"Ciudad de Corella" kiroldegiaren eta gizarte-zerbitzuen atezaintza eta garbiketa-lanak (C hornitzailea)	34.322	147.852	2018/05/01
Ibilgailuak eremu publikotik kentzea	23.229	65.191	2020/01/01
Gaztelekuko atezaintza, garbiketa-lanak eta taberna	18.150	77.138	2018/10/01
Udaletxea, epaitegia, turismo-bulegoa eta komunak garbitzea (D hornitzailea)	15.861	55.588	2019/01/01
Lan-aholkularitza	12.531	50.123	2019/01/01
Galdaren mantentze-lanak	11.131	66.786	2017/01/25
Etkez etxeko laguntzako zerbitzuaren garbiketa-lanak (D hornitzailea)	3.067	12.720	2019/01/01
Guztira	286.658	822.183	

(1) Kontratu bakoitza kontratista bakarrari dagokio. Ikusi dugu bi kontratistak zerrrenda honetan jasotako zerbitzu bat baino gehiago eman dituztela.

Gastu horiek ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntari buruzko 2. kapituluan kontabilizatu dira, eta horren ehuneko zazpi egiten dute.

Txosten hau egin den unean, Udalak jakinarazi duenez, zerbitzu horiek ematen jarraitzen dute haiek lizitatu gabe, kirol-monitoreen kasuan izan ezik, horien kontratua 2023ko apirilean esleitu baitzen⁴.

Egin dugun fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuez gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Kontratazio publikoko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*
- *Kontratazio-espeditenteak izapidetzean udal-idazkaritzaren titularrak nahitaezko txosten juridikoak eman ditzala beti, edo, gutxienez, espeditenteen edukiarekin ados dagoela adieraz dezala.*
- *Kontratazio-pleguetan prezioa irizpidea baloratzeko formulak ezartzea beti, prezioaren beharapenei puntuazio linealki proportzionalak emango dizkietenak.*
- *Kontratuen esleipenak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea legez ezarritako epeetan.*
- *Exekuzio-baldintza bereziak eta izaera sozialeko esleipen-irizpideekin lotutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzea.*
- *Kontratuak aldatzeok espeditenteak izapidetzea.*
- *Obren harrerako eta ondasunen entregako aktak jasotzea beti, eta, hala badagokio, kontratistei eskatzea konpon ditzatela hautemandako akatsak.*

⁴ Udalak aurkeztutako alegazioei erantzunez gehitutako tartekia.

- *Dagozkien zigorrak ezartzea kontratistei kontratua betetzean berandutzen diren bakoitzean, salbu eta erabakitzen bada hori ez dela bidezkoa KPFLren eta pleguaren arabera; kasu horretan, jasota utziko da erabakia, eta arrazoiak ere azalduko dira.*

- *Munta txikiko araubide bereziaren bidez adjudikatutako kontratuen zerrendak argitaratzea hiru hilean behin.*

4.3 “CORELLA MUSIC FEST” MUSIKA-JAIALDIA

4.3.1 Kudeaketa-alderdiak

2022ko azaroaren 5ean egin zen CMF jaialdia, Udalaren jabetzakoa den Corellako Ombatillo Kirol Hirian.

Jaialdiaren antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako zenbait kontu garrantzitsu aipatuko ditugu jarraian.

- Ez da jasota geratu ekitaldiaren antolaketan lagundu zuen enpresak ekitaldiaren plangintzarik aurkeztu zionik Udalari, ez eta bertaratzeei, diru-sarrereri eta gastuei buruzko zenbatespenik ere. Geroago, 2023ko otsailean, enpresak Udalari jakinarazi zion “guztizko edukiera 8.000 pertsonakoa” zela, eta “4.000 eta 5.000 pertsona bitarte bertaratzea espero” zitekeela.

- Sarrereren alde aurreko salmenta Internet bidez egin zen. 1.623 sarrera banatu ziren aurrez, prezio desberdinetan, baita batzuk dohainik ere (gonbidapenak eta haurren sarrerak). Kontzeptu horrengatik, 63.503 euro jaso zituen Udalak, eta horietatik, online salmentako plataformari ordaindu zizkion 5.794 euro kudeaketa-gastu gisa.

- CMFra bertaratutako eskura jarri zen garraio-zerbitzua Udalak berak kudeatu zuen zuzenean; autobusak kontratatu zituen (3.850 euroko gastua), eta txartelak saldu zituen (1.970 euroko diru-sarrera).

- Antolaketan lagundu zuen enpresaren kontratazioa zuzenean esleitu zen. Enpresak 5.445 euro (BEZa barne) fakturatu dizkio Udalari kontzeptu honegatik: “Corella Music Fest jaialdiaren ekoizpena, proiektuaren planoak eta cateringa”⁵. Ezin izan dugunez lortu behar bezalako eta behar besteko ebidentziarik ostalaritza-zerbitzuak emateko adostutako baldintzei buruz, ezin dugu jakin ez zer motatakoa zen kontratua, ez zenbatekoa zen haren balio zenbatetsia. Beraz, ezin dugu zehaztu ea zuzena izan zen esleipenerako erabilitako prozedura.

- Ekitaldiarekin lotutako kontratu-esleipen guztiak munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidez egin ziren, eta txoten honetan jasotako Udalaren kontratazioari buruzko azterketetan sartuta daude. Kontratazio horietako gehienak CMFren antolaketan lagundu zuen enpresa espezializatuaren bitartekaritzarekin egin ziren. Alabaina, enpresa horrek ez zuen parte hartzen kontratu horietan; Udalak eta zenbait kontratistak soilik sinatu zituzten.

- 2023ko urtarrilean, CMFekin lotutako fakturen ordainketa eten zuen alkateak, eta horren harira, erreklamazioak eta errekursoak aurkeztu zituzten zenbait kontratistak. Udalak aholkularitza juridikoko txosten bat enkargatu zion abokatu bati, eta, geroago, “ordainketa-akordioak aztertzea, negoziatzea eta bideratzea modu bateratuan, toki-entitatearentzako mesedegarrienak ziren epeetan eta baldintzetan”. 2023ko martxoan, Udalak akordioak sinatu zituen 27 kontratistarekin; horien bidez, itundu zuten kontratistek uko eginen zietela berandutze-interesei, eta, 11 kasutan, zorraren zenbateko nagusiaren zati bat barkatuko zutela gainera.

- Kontratistei zegozkien ordainketak eten ostean zenbait kontratistarekin lortutako akordioek gastua 33.989 euroan murriztea ekarri dute, zorraren barkamen partzialengatik, eta, gainera, berandutze-interesak aurreztu dira; alabaina, Udalak 10.890 euroko gastua egin zuen akordio horiek lortzeko aholkularitza juridikoagatik. Deigarria da kontratistek zor zizkieten zenbatekoei osoki uko egin izana, kontuan hartuta Udalak ez duela inoiz zalantzan jarri haien prestazioak behar bezala egin zituztenik. Zentzu horretan, honako hau zioen udal-idazkariak 2023ko urtarrilean emandako txosten batek: “ez da egiaztatuta gelditu legez ezarritako epean ez ordaintzeko arrazoirik”. Gerora,

⁵ Beste alde batetik, 3.630 euro fakturatu zituen musika-talde baten emanaldiagatik.

Udalak enkargatutako txosten juridikoan jasotako ondorioa izan zen hark kontratistei ordaindu behar ziela, emandako zerbitzuengatik.

- Txosten hau egin den unean, ez da jasota gelditu izapidetan dagoenik CMFrekin lotutako errekurtsio administratiborik edo judizialik. Nahiz eta udalak zenbait informazio-eskaera egin dizkion jaialdiaren antolaketan lagundu zuen enpresari, eta nahiz eta uste duen hark ez dituela bete bere betebeharrak, Udalak ez du horri buruzko legezko ekintzarik abiarazi. Ez da jasota gelditu enpresak Udalaren kontra legezko ekintzarik abiarazi duenik ere.

4.3.2. Diru-sarrerak eta gastuak

Udalak honako diru-sarrera eta gastu hauek aitortu ditu CMF dela-eta:

Kontzeptua	2022ko aurrekontu-aren betetzea ¹	2023ko aurrekontu-aren betetzea ¹	CMF, guztira ¹
Sarreraren aldeko aurreko salmenta (online)	63.503	-	63.503
Garraio-zerbitzuak (autobus-txartel salmenta)	1.970	-	1.970
Leihatilako sarrera-salmenta (50€/sarrera)	-	-	-
Ostalaritza-zerbitzuak	-	-	-
Onetsitako diru-sarrerak, guztira	65.473	-	65.473
Musika-saioak (zortzi kontratista)	(138.085) ³	(8.470)	(146.555)
Iglu-karpa alokatzea	(39.975)	-	(39.975)
Segurtasun-zerbitzuak	(36.443)	-	(36.443)
Lantalde teknikoa	(36.058)	-	(36.058)
Kanpoko aholkularitza juridikoa kontratistekiko negozioazio eta transakzioetan ⁴	-	(10.890)	(10.890)
Kanpoko txosten juridikoa ⁴	-	(6.050)	(6.050)
Aldez aurreko sarrera-salmentaren kudeaketa (online)	(5.794)	-	(5.794)
Ekoizpena, proiektuaren planoak eta cateringa	(5.445)	-	(5.445)
Garraio-zerbitzuak (autobusak)	(3.850)	-	(3.850)
Beste gastu batzuk	(83.596)	(17.285)	(100.881)
Zor-barkamen partzialerako akordioak 11 kontratistarekin (2023ko martxoa)	31.079	2.910	33.989
Gastu aitortuak, guztira	(318.166)	(39.786)	(357.952)
Diru-sarrera aitortuak – gastu aitortuak	(252.693)	(39.786)	(292.479)

(1) Gastuak, BEZa barne.

(2) Udalak ez du kontzeptu horiengatik eskubiderik aitortu. Gai horrek nozitzen du txosten honetako "Iritziaren oinarria" atalean adierazitako norainokoaren mugen eragina.

(3) Deskontatu egin dira 2022ko betebeharretak 7.700 euro, zeinak 2023an deuseztatu baitziren, fakturako akats bat zela-eta.

(4) 'Corella Music Fest-eko gastuak' partidan kontabilizatu gabeko gastuak.

Zenbatespen horretan ez dugu sartu 2.469 euroko gastu bat (BEZa barne), musika-taldeen osatutzeagatikoa. Ekitaldiaren antolaketan lagundu zuen enpresa espezializatuak adierazi digunez, oraindik eginkizun dauka hori udalari fakturatzea, eta udalak ez du ez aitortu ez eta ordaindu ere egin. Gai horretan enpresaren eta udalaren artean hitzarturiko baldintzen ebidentziarik ezin izan dugunez lortu, ez dugu oharmenik gastu hori udalak bere gain hartu beharrekoa izateaz.

Txosten honen egite-aldian, udalak bere kontabilitatean aitortuta zeuzkan diru-sarrera guztiak kobratuta dauzka. Orobat ordaindu ditu gastu aitortu guztiak, bi faktura salbu, guztira 9.075 euro egiten dutenak (BEZa barne), ekitaldiaren antolaketan lagundu zuen enpresak jaulkitakoak.

4.4 TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO UDAL-GASTUAK

2022an, transferentzia-gastuak 593.162 eurokoak izan ziren. Kopuru horrek gastuen guztizko zenbatekoaren ehuneko sei egiten du, jarraian zehazten denez:

	4. kap. Transferentzia arruntak	7. kap. Kapital-transferentziak
41. Toki-entitatearen erakunde autonomoak	440.000	-
46. Toki-entitateak	34.096	-
47. Enpresa pribatuak	9.280	-
48/78. Familiak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	99.786	10.000
Guztira	583.162	10.000

(1) Erriberako Mankomunitatea, EDER Partzuergoa eta Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoaren kuota.

2022an udalean ez zegoen udal-talde politikoentzat ezarritako diru-zuzkidurarik. 2024an hasi dira aplikatuak izaten.

Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategikorik.

Izendun dirulaguntzen eta gainerako dirulaguntzen lagin bana aztertu dugu.

4.4.1 Izendun dirulaguntzen lagin baten azterketa

Udalaren 2022ko aurrekontuan aurreikusitako izendun dirulaguntzak honako hauek dira:

Aurrekontu-aplikazioa	Behin betiko kreditua	ABG
Musika-bandarentzako dirulaguntza	30.000	30.000
Pentsiodun eta Erretirodunen Elkartearantzako dirulaguntza ¹	10.000	10.000
ADISCOren zinemarako dirulaguntza	9.280	9.280
Corellako Merkatarien Elkartearantzako dirulaguntza	11.539	7.493
Gurutze Gorriarentzako dirulaguntza	2.500	5.000
Arrese Fundazioarekiko hitzarmena	6.000	4.665
"Hoya" Ehiztari-elkartearantzako dirulaguntza	3.000	3.000
Corellako Gida Elkartearantzako dirulaguntza	1.500	1.500
Izendun dirulaguntzak, guztira	73.819	70.938

(1) Kapital-dirulaguntzak. Gainerako dirulaguntzak izaeraz arruntak dira.

Bost dirulaguntzako lagin bat aztertu dugu, guztira 56.945 euro; hau da, izendun dirulaguntza guztien ehuneko 80. Honako hauek dira:

Aurrekontu-aplikazioa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak
Musika-bandarentzako dirulaguntza	30.000	30.000
Pentsiodun eta Erretirodunen Elkartearantzako dirulaguntza	10.000	10.000
ADISCOren zinemarako dirulaguntza	9.280	9.280
Arrese Fundazioarekiko hitzarmena	6.000	4.665
"Hoya" Ehiztari-elkartearantzako dirulaguntza	3.000	3.000
Izendun dirulaguntzen lagina, guztira	58.280	56.945

Aurreko analisitik ondorioztatu dugu ezen, oro har, dirulaguntza horiek, beren alderdi muntadunetan, araudiari jarraikiz erabaki eta kudeatu direla, "aurkako iritziaren oinarria" atalean jasotako salbuespenengatik izan ezik. Dena den, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Dirulaguntza izendunen emateak ez dira argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen.
- Corellako Musika Banda musika-taldearekiko hitzarmen gisa aurkezturiko dokumentuak 2010eko data dauka; eta, udalak zigilatuta agertzen den arren, ezein alderdik ez du sinatu. Dirulaguntza justifikatzeko modua ez du aipura ekartzen. Nolanahi ere, fiskalizaturiko ekitaldirako justifikazio-betebeharrak zehatz daude adierazita dirulaguntza emateko erabakian. 2023tik aurrerako indarra duen hitzarmen bat izenpetu da, eta horrek ere ez du justifikazio-betebeharririk ezartzen.
- Arrese Fundazioarentzako 2022rako dirulaguntzaren hitzarmen arauemailea 2023ko urtarri-lean izenpetu zen.
- Ehiztari-elkartearentzako dirulaguntzak ez dauka hitzarmen arauemailerik. Dirulaguntza emateko erabakiak oso llaburki definitzen du dirulaguntzaren xedea, eta ez du justifikazio-araubiderik ezartzen. Dena den, elkarteak jarduera-oroitidazki bat aurkeztu zuen, eta funtsen aplikazioa justifikatu egin zuen.

4.4.2 Dirulaguntza izengabean lagin baten berrikuspena

Udalaren 2022rako aurrekontuak honako aurrekontu-aplikazio hauek ezartzen zituen aurrekontuan zehaztuta agertzen ez diren onuradunak dituzten dirulaguntzak erabakitzearen kasurako:

Aurrekontu-aplikazioa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak garbiak
Gizarte-larrialdiko laguntzak	30.000	16.658
Dirulaguntza kulturalak	28.000	13.400
Jaietako jardueretarako dirulaguntza	7.600	10.375
Kirol-dirulaguntzak	11.000	4.000
Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoaren dirulaguntzak	5.000	-
Genero-indarkeria kasuetarako larrialdi-laguntza	1.500	-
Jaietako kartelen lehiaketako dirulaguntza	600	-
Guztira	83.700	44.433

Kultur, jai eta kirol jardueretarako dirulaguntzen aurrekontu-aplikazioen lagin bat aztertu dugu. Honakoak dira haien onuradun suertaturiko entitateak:

Aurrekontu-aplikazioa	Entitate onuraduna	Aitortutako betebeharrak garbiak (ABG)
Dirulaguntza kulturalak	Pasioaren Ermandadea	3.800
	"Centinela" rondalla	3.000
	"Turrumberos" elkarte	3.000
	"Gracurris" peña	1.000
	"Virgen del Villar" guraso-elkarte	1.000
	"Virgen del Villar" orfeoia	1.000
	Corellako "Virgen de Araceli" jaiotzazale-elkarte	600
Jaietako jardueretarako dirulaguntzak	"Gracurris" peña	5.000
	"El Tonel" peña	5.000
	Saski-naski ("calderillos" sariak) ¹	375
Kirol-dirulaguntzak	"Corellano" Kirol Elkarte	3.500
	Corellako atletismo-elkarte	500
Guztira		27.775

(1) Gure analisitik kanpo.

Ez zen deialdi publikorik egin dirulaguntza hauentzat.

2008an, udalak "Dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri arau emaileak" argitaratu zituen (32. NAO, 2008ko martxoaren 10ekoa). Ezertan eragotzi gabe iraunkorrek diren oinarri arauemaile batzuk existitu ahal izatea, udalak ekitaldiari zegokion dirulaguntza-deialdia beharko zukeen onetsi eta argitaratu. Nolanahi dela ere, 2008an onetsitako erabakitze-prozedurari ere ez zaio jarraitu. Praktikan, udalak dirulaguntza horiek zuzeneko dirulaguntza gisa izapidetu ditu.

Kultur eta kirol dirulaguntzak 2022ko maiatz eta azaroan tokiko gobernu-batzarrak hartutako erabakien bitartez onetsi ziren; bi kasuetan, kontu-hartzaitzak eragozpena adierazi eta idazkari-tzak ohartarazpena egin ondoren, zergatia zelarik, besteak beste, dirulaguntza-deialdirik egin ez izana.

Dirulaguntzak emateko erabakiek zehazten zituzten "kontzeptua" (xedea), entitate onuraduna eta dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, bai eta haien ordaintze- eta justifikatze-araubidea ere.

Dirulaguntza horietaz egin dugun analisitik, konklusio orokor hauetaz eta txosten honen "Aurkako iritzia oinarria" atalean adierazitakoez gain, nabarmentzen dugu udalak ez dituela dirulaguntza izengabeen emateak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzen.

Egin dugun fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuez gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Dirulaguntzen zuzeneko adjudikazioaren araubidea erabiltzea DLOak horretarako aurreikusitako kasuren bat betetzen dela aurretiaz frogatzen denean, eta orduan bakarrik.*
- *Aurrekontuan zehazturik jasotzea udalak izendun gisa ematea erabakitzen duen dirulaguntza guztiak, entitate onuradun, zenbateko eta kasuko aurrekontu-aplikazio zehaztuekin; halaber, haien hitzarmen arauemaileak izenpetu edo egokitzea, zeinek zehaztu egin behar baitute dirulaguntza justifikatzeko modu bat, DLOren eta haren garapen-erregelamenduaren arabera.*
- *Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dirulaguntza-deialdiak eta dirulaguntza-erabakiak argitaratzea.*

4.5 'SAN JOSÉ ZAHARRENTZAKO EGOITZA' ERAKUNDE AUTONOMOA

4.5.1 Erakunde autonomoaren langileria

Langile-gastuak 955.440 eurokoak izan ziren, eta erakundeak ekitaldian sortutako gastu guztien % 59 egin zuten. Honako taula honetan ematen da gastu horren xehakapenaren berri:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2022)
13. Lan-kontratudunak	752.296
16 Enplegatzailearen konturako kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	203.142
Guztira	955.440

Plantilla organikoa

Erakundearen 2022ko plantilla organikoaren behin betiko onespina 2022ko 72. NAO-n argitaratu zen, apirilaren 11koan, udalarenarekin batera.

Erakunde autonomoak ez zuen argitaratu 2022ko abenduaren 31ko langile-zerrenda, LETBak horretara behartzen badu ere. Horren ordez, 2023ko otsailaren 15ekoa zen langile-zerrenda bat onetsi eta argitaratu zuen (2023ko 95. NAO, maiatzaren 8koa).

2022aren amaiera-partean zegoen plantilla 23 lanpostuk osatzen zuten, zeinen araubide juridikoa ez baita zehazten, nahiz eta 2023ko otsailaren 15ean zegoen plantilla guztiak lan-araubideko kontratua zeukan.

Plantilla organikoaz egin dugun analisisian oinarriturik, akats gisa azpimarratzen duguna da, lanpostuen araubide juridikoa ez aipatzeaz gain, horien maila eta ordainsari osagarriak ere ez direla zehazten, LETBan ezartzen denaz kontra.

Erakundeak ez zuenez argitaratu 2022aren amaierako langile-zerrenda, honako taula honetan erakusten dugu postuen 2023ko otsailaren 15eko egoera, zeina hauxe baitzen:

Langileak	2023/02/15eko egoera
Plantillako lanpostuak	23
Beteta	1
Hutsik	22
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	96
Bete diren lanpostu hutsak	22
Bete diren lanpostu hutsak (%)	100
Bete gabeko lanpostu hutsak	0
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	0

Ikusten da ezen plantillako guztizkoaren ehuneko 96 zirela lanpostu hutsak, den-denak aldi baterako beteak. Behin-behinekotasunaren indizea, kalkulatu aldi baterako betetako plazen eta modu finkoan nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa, ehuneko 96koa zen.

Langile-hautaketako prozesuak

2022an, erakunde autonomoak ez du deitu langile-hautaketarako prozesurik, enplegu-egonkortze prozesutik eratorritakoez kanpo; geroago hitz egingo dugu horiei buruz.

Sei langiletarako beste hainbeste kontratazioen lagin bat aztertu dugu; horietatik, bi mugagabeak ziren, eta lau, aldi baterakoak. Horri buruzko konklusioa txosten honen "Aurkako iritzia oinarria" atalean adierazi da, eta honako honetan da oinarritzen:

- Kontratu mugagabea egin zaien bi pertsonen lehen ere egin izan zitzaizkien aldi baterako kontratuak zenbait aldiz, kasu batean aldi baterako kontratazioarako izangai-zerrenda batean oinarrituta. Baina ez da haien kontratazio mugagaberako ezin hautaketa-prozesu agertzen.
- Aldi baterako kontratazioei dagokienez, erakunde autonomoak adierazi du ezen kontratatu-riko pertsonetako bat Nafarroako Enplegu Zerbitzuak proposatua izan zela, baina gainerako kasuetan ez zela zerbitzu horren bitartez pertsona eskuragarri aurkitu.
- Erakunde autonomoak jakinarazten duenez, aldi baterako kontratazioarako izangai-zerrendak agortuta daude; hortaz, zerbitzuari eusteko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarengana jotzen dute, eta, halakorik ezean, elkarrizketa pertsonaletara. Horri buruz, esan beharra dugu ezen, 2013tik aurrera, erakunde autonomoak ez duela inolako deialdirik egin, garbitzaile gisa aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrenda bat osatzekorik. Lanpostu horretarako dira kontrataziorik gehienak.

Enplegu publikoa egonkortzeko prozesua

Enplegu publikoa egonkortzeko prozesua aztertu dugu, ikusteko ea bete diren 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzkoa den uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legeak ezartzen dituen betekizun eta epeak. Corellako Udala, 2022ko urriaren 13ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, partzialki atxiki zen foru lege horren II. Tituluan jasotako erregulaziora.

Gure azterketatik, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Udalak, egonkortzea xede, EEP-enplegu-eskaintza publiko bat onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 24ko NAO-n argitaratua, legez horretarako aurreikusitako epean, erakunde autonomoko 23 lanpostu barne hartzen zituena guztira.
- 23 lanpostu horietatik, 22 beteko ziren merezimendu-lehiaketaren bitartez, eta bat, oposizio-lehiaketaren bitartez.
- EEPan sartutako postuen lagin bat aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu ezen, oro har, bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.

- Postu horiek betetzeko onetsitako deialdiak 2022ko 253. NAOn argitaratu ziren, abenduaren 19koan, legez horretarako aurreikusitako epearen barruan.
- Udaleko idazkariak jakinarazi duenez, ez da aurkeztu ez administrazio-errekurtsorik ez erre-kurtsu judizialik erakunde autonomoko enplegu publikoaren egonkortze-prozesuarekin lotuta.
- Txosten hau idazteko garaian, honako hau da deialdien egoera:

Hautatze-sistema	Deialdia amai-tuta	Aribidean	Hasteko zain	Deitutako lanpos-tuak, guztira
Merezimendu-lehiaketa	-	22	-	22
Oposizio-lehiaketa	-	1	-	1
Erakunde autonomoko postu-kopuru guztizkoa	-	23	-	23

Deialdietara onarturiko pertsonen behin betiko zerrendak 2023ko apirilean onetsi ziren.

Enplegu-egonkortzeko hautapen-prozesu horiek bukatuta egon behar dute 2024ko abenduaren 31 baino lehen, data horretarako bete behar baita legez aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak egiturazko plazen ehuneko 8ra murriztea. Hori horrela, ez dugu egiaztatu ea bete den helburua.

Langileria-gastuari buruzko egiaztapenak

Erakunde autonomoaren plantillari 2022an aplikatzekoak zitzaizkion ordainketa-baldintzak "Co-rellako 'San José Zaharrentzako Egoitza' entitatearen Hitzarmen Kolektiboa" deritzon ean ezarrita daude, 2021eko urtarrilaren 9ko NAOn argitaratua eta ezein alderdik salatua ez izateagatik indar-raldian luzatua.

2022ko urrian sortutako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu, guztira 32 pertsonari dagokiena, 39.728 euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori hilabete horretako nomina-ren guztizkoaren ehuneko 68 da. Honako hauek izan dira aztertutako ordainsariak eta haien zen-batekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	36.460
Eskuragarritasun-akordioa	1.662
Antzintasuna	1.606
Guztira	39.728

Aipatutako azterketatik ondorioztatu dugu ezen, oro har, nominan kontzeptu horietarako jasotako ordainsariak bat datozela hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoekin, plantilla organikoan argi-taraturiko lanpostuen arabera.

Egin dugun fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuek gain, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Plantilla organikoan zehaztea lanpostuen araubide juridikoa, maila eta ordainsari osagarriak.*
- *Izangai-zerrendetarako hautaprosesuak deitzea, publizitate-, berdintasun-, merezimendu-eta gaitasun-printzipioen arabera, aldi baterako langileak kontratatzeke premiei erantzutea ahalbidetuko dutenak.*

4.5.2 Erakunde autonomoaren kontratazio publikoa

Erakunde autonomoak ez du inolako lizitaziorik egin ez ekitaldian, ez aurreko lau ekitaldietan, gutxienez. Ondoren ere ez du inolakorik egin.

Alde horretatik, ikusi dugu erakunde autonomoa ez dela adjudikazio-entitate bezala agertzen Nafarroako Kontratazioaren Atarian, KPFLak kontrakoa ezartzen badu ere.

Bestalde, erakundeak jakinarazitako informazioaren arabera, 2022an ez du kontratu mugaegueratuko inongo prestazioengatik gasturik ordaindu.

Beraz, gure lana izan da aurrekontuko 2 eta 6. kapituluetakoa gastuen lagin baten analisia egitea –gastu horiek guztiak munta txikiko kontratuertarako araubide bereziaren bidez kontratatuak izan dira–, ondorioztatze aldera ea egokia izan ote den araubide berezi hori erabiltzea.

Munta txikiko kontratuertarako araubide bereziaren bidez egindako esleipenak

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoa gastu arruntak 550.485 eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 34 egiten dute. Hona hemen xehetasunak:

Artikulua	Aitortutako Betebehar Garbiak (2022)
21. Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	67.266
22. Materiala, hornidurak eta beste	482.722
23. Zerbitzuaren ondoriozko gastuen kalte-ordainak	497
Ondasun arrunt eta zerbitzuertako gastuak, guztira (2. kapitulua)	550.485

Gastu-kapitulu honen aurrekontu-exekuzioa ehuneko 130ekoa izan da. Beraz, erakunde autonomoak betebeharrak bereganatu ditu horretarako behar bezalako eta behar adinako krediturik izan gabe. Gastu-gaindikina 126.603 eurokoa izan da.

2022ko inbertsio errealetako gastuak 104.311 eurokoak izan ziren guztira. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko sei egiten du, jarraian azaltzen den moduan banatua:

Artikulu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak garbiak (ABG), 2022
62. Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	1.778
63. Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako lehengoratzeko inbertsioa	102.533
Inbertsio errealetan egindako gastua, guztira (6. kapitulua)	104.311

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuertako gastu arruntak

Koadro honetan adierazi da erakundeak zenbat kontratistarekin aitortu dituen betebeharrak gastu-kapitulu honetan 2022an, horiek xehatuta erakundeak ekitaldian bere gain harturiko betebeharraren bolumenaren arabera.

Gastua, guztira (2022)	Kontratista-kop.	Zenbatekoa
15.000 euro + BEZa batura baino gehiago	8	376.332
3.750 euro + BEZa baturaren eta 15.000 euro + BEZa baturaren artean	12	100.416
3.750 euro + BEZa batura baino gutxiago	94	73.737
Guztira	114	550.485

Ekitaldian 3.750 euro gehi BEZa batura baino gehiagoko gastua duten 20 kontratistez osaturiko lagina aztertu dugu. Erakundeak kontratista horiekin egindako gastua 476.748koa izan da; hots, kapituluaren guztizkoaren ehuneko 87 bezainbestekoa.

Honako taula honetan azaltzen dira aztertutako laginean sarturiko prestazioak, halakoak zeinak, duten balio zenbatetsia kontuan harturik, lizitazio-xede izan beharko baitziratekeen. Haien kontratu

bakar bat ere ez da lizitatu izan. Haien guztizko gastu-bolumena 420.486 eurokoa da. Hamalau kontratistari dagokie, jarraian adierazten den moduan:

Prestazioaren deskribapena ¹	Gastua (2022)
Elikagai-hornidura	108.881
Gasolioa	62.510
Garbiketa-zerbitzuak	60.694
Fisioterapia eta terapia okupazionala (bi kontratista)	72.564
Elektrizitate-hornidura (lau kontratista)	41.626
Igogailurako mantentze-lana	14.707
Higiene-produktuak (bi kontratista)	13.905
Arropa lauaren garbiketarako zerbitzua	12.245
Garbigaiak	11.132
Arropa-detergentearen hornidura	10.528
Lan-aholkularitza	5.951
Butano-gasaren hornidura	5.744
Guztira	420.486

(1) Prestazio bakoitza kontratista bakarrak egina da, aipaturikoak izan ezik. Kontratista berak eginiko bi prestazio daude.

Bestalde, eta 1. kapituluaren langileria-gastuak kontabilizaturiko gastua duen arren, gure landa-lana egitean ikusi dugu ezen laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuaren kontratua, zeinaren gastua, ekitaldian, 7.444 eurokoa izan baita, ez dela lizitatu, KPFLak ezartzen duenarekin kontraresean, kontuan harturik kontratuaren balio zenbatetsia, ondoz ondoko ekitaldien argipean.

- 6. kapitulua: inbertsio errealak

Honako koadro honetan adierazi da erakunde autonomoak zenbat kontratistarekin aitortu dituen gastu-kapitulu honetako betebeharrak, horiek xehatuta udalak ekitaldian bere gain harturiko betebeharren bolumenaren arabera.

Gastua, guztira (2022)	Kontratista-kop.	Zenbatekoa
40.000 euro + BEZa batura baino gehiago	-	-
15.000 euro + BEZa baturaren eta 40.000 euro + BEZa baturaren artean	1	27.599
15.000 euro + BEZa baino gutxiago	17	76.712
Guztira	18	104.311

Aztertu dugu nolakoa izan den udalak ekitaldian 15.000 euro gehi BEZa batura baino zenbateko handiagoko betebeharrak bere gain hartu ditueneko hornitzaile bakarrarekin eginiko kontratazioa.

Hornitzaile horrekin eginiko gastua 27.599 euro (BEZa barne) zenbatekoa duen hornidura-kontratu bati dagokio, zeina munta txikiko kontratuarentarako araubide bereziaren bitartez adjudikatua izatea KPFLaren kontrakoa baita.

- Kontratazioak argitaratzea

KPFLak kontrakoa ezartzen badu ere, erakundeak ez ditu munta txikiko kontratuen zerrendak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen.

2024ko ekainean, udalak jakinarazi digu enpresa espezializatu baten aholkularitza kontratatu duela, erakunde autonomoaren kudeaketa hobetze aldera.

Gure fiskalizazio-lanaren ondorioz, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako gomendioez gain, *gomendatzen dugu Nafarroako Kontratazioaren Atarian hiru hilean behin argitaratzea munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez egindako esleipenak.*

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Corellako Udaleko alkate udalburu Gorka García Izal jaunak, aipatu udalaren izenean eta ordezkaitzaz,

AZALTZEN DU:

LEHENA.- Kontuen Ganberako lehendakariaren 2024ko ekainaren 21eko Ebazpenaren bitartez onetsi dela Corellako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena, eta Udalari igorri zaiola aztertzeko eta, kasua bada, alegazioak aurkezteko, 2024ko ekainaren 27ra bitartean.

BIGARRENA.- Honako idazki honen bidez baliatzen dudala aukeran emandako izapidea, horretarako jaulkirik honako

ALEGAZIOAK**LEHENA. – GOMENDIOAK****1.1. LANGILEAK**

Liskar-asmorik gabe, eta udalaren urratsak justifikatzeko beste ezertarako ez, kontuan hartu behar da Corella dugula langile-plantilla oso mugatua edukita zerbitzu-andana ematen duen udal bat. Horrek askotan behartzen du kontratazioak urgentziagatik lastertasunez egitera, dela kontratazio-zerrenda indardunik ez egoteagatik, dela zerrenda horiek agortuta egoteagatik, dela halakorik ez existitzeagatik; halako moldez non hautaprosesuen bitartez egin ezin den kontratazio-era bati heldu behar baitzaio, prozesu horiek denboran luzeegiak izateagatik eta horrek askotan ezindu eginen lukeelako aurreikusiak eta premiazkoak diren zerbitzuak ematea.

Bestalde, aldi baterako kontratazioaren indizea altua izan da, orokortasunez, administrazio guztietan; eta udal honek kasuko egonkortze-prozesuak egin ditu, horrek ere kudeaketa alorreko administrazio-baliabide asko kontsumiturik, eta halaber eragotzirik kontratazio-zerrendetarako eta/edo lanpostu finkoak betetzeko gainerako deialdiak aurrera eramatea. Gainera, gogoan izan behar da ordezte-tasek orain arte eragotzi egin dutela langile finkeen hautaketa, are lanpostu hutsak egonik ere; horrenbestez, aldi baterako kontratuen tasa nekez da asko jaitsi ahal izateko modukoa, egonkortzearen bidez ez bada.

Horrez gain, azterturiko ekitaldian ohiz kanpoko lan-gatazkako egoera nozitu zen toki-poliziarren kideagoan. Horren kudeaketa juridikoa kanpoan kontratatu zen arren, guztiarekin ere administrazio-kudeaketa arrunta astundu egin zen, eta atzerapenak eragin beste hautaketa batzuetan, are polizian bertan. Halatan, gaur den egunean badaude polizia-postuak eta lehen agenteen postuak 2022an onetsitako deialdiak dituztenak baina haietan aurreikusitako hautaketa egin gabe dutenak, udal-administrazioak kudeatze-ahalmenik ez izateagatik.

Udal hau kolapso-egoeran egon da pandemiaren ondoren langile-zerbitzuen gorabeherak eragin duten bolumen guztia behar bezala kudeatzerakoan; halere, bere borondate irmoa da Kontuen Ganberaren gomendioa onartu eta, Ganbera horri premiaren esanbidezko aipamenagatik eskerrak emanez eta egonkortzea amaituta edo amaitze bidean dagoelarik, honako soluziobideak ezartzea:

- Aldi baterako ordezte-lanpostu egiturazkoetarako eta berrietarako kontratazio finkoetarako hautaprosesuak erregularizatu eta deitzea, dagoen mugapena kendu bezain laster.
- Lehentasuna ematea kontratazio-zerrenden berrikuspenari, eta langileria-mota horretarako hautaprosesu berrietarako deialdiak egitea urgentziaz.
- 2024ko plantilla organikoan giza baliabideen kudeaketako eta administrazio-kudeaketako postu bat sartzeari, 2025ean bete dadin, bere gain hartuko duena langileriarren administrazio-kudeaketa, eta laguntza emanen diena Idazkaritzari eta Kontu-hartzaitzari administrazio-prozesuetan, langileria berrantolatu ahal izateko eta prozesu horietan diharduten udal-langile guztien lastertasun eta eraginkortasuna hobetu ahal izateko.

Konklusio gisa: udal honek legegintzaldi honetan zehar xede izanen du Kontuen Ganberaren gomendioa betetzea; eta hori lortzeko, azaldutako neurriak aplikatuko ditu.

1.2. KONTRATAZIOA

2020an eta 2021ean zehar lan bikaina egin zen Montes de Cierzo y Argenzón-en partikularren eskuetan zeuden herri-ondasunak berreskuratzeko. Lan hori eskutik joan zen Corellaren udal-mugar-tean energia berriztagarriko instalazioak ezartzeko eskaerei emandako erantzunarekin (eskaera horietako asko, herri-ondasun eztabaidatu horien gainekoak).

Jakina, ezarpen horien ondoriozko diru-sarrereren kudeaketa munta handikoa zen, eta hagitz kome-nigarria dirubide publikoentzat.

Zuzemen horien emaitza gisa, eta Nafarroako Gobernuak berreskuratzearen oinarri orokorrak 2022ko ekainean onetsi ondoren, jadanik bazeuden espediente abiatuak, Udalbatzaren onespena zeukaten hitzarmenak eta guzti, berriztagarrien arloko enpresentzat eta partikularrentzat, enpresa nahiz pertsona fisiko izan.

Errealitatearen poderioz, berriro ere, nahiz eta kanpoko kontratazioak egin ziren zuzenbidearen alo-rreko gai horren berezitasunagatik eta peritatze teknikoengatik, administrazio-kudeaketa arruntak zama handiagoa jasan zuen, eta hori ez zen lagungarria izan langileek kontratazio-espediente guz-tiei egokiro aurre egin ahal izateko.

Horregatik, udalaren borondatea ez da ez orain ez lehen ere izan prozedurak urratzea, nahiz eta begi-bistakoa den ezinezkoa izan dela, dauzkagun bitartekoekin, zerbitzu-ematearen gaineko hel-buruak lortzea, epeagatik iraungitako kontratu ugari eguneratuz eta beste zerbitzu batzuetarako be-har ziren kontratu berriak eginez.

Horregatik, eta egoera konpontzeko neurri gisa, jadanik 2022an espedienteak egin ziren iraungitako kontratuak egiteko; zehazki, kirol-begiraleen ikastetxearen garbiketa eta gazte-zentroaren garbi-keta.

Aurrekoaz gain, eta herritarrentzat ezinbesteko zerbitzua diren igerilekuen problematikaren ondo-rioz, beharrezkoa izan zen igerileku zaharrak eraisteko eta berriak eraikitzeke espedientea erreko-rrerzko denboran kudeatzea, horrek antolaketu-estresa ekarririk. Halaber, beste premia batzuei au-rrer egin behar izan zitzairen, hala nola kaleak zolatzea, bideak asfaltatzea edo Alonsotarren jauregia egonkortzea. Eraikin hori duela zenbait urte erosi zen, administrazio-kudeaketako udal-zerbitzuetar-ako erabiltzeko, ezen zeharo burugabea da zerbitzu horiek gaur den egunean udaletxean kokatuta egotea.

Legegintzaldi honetarako neurri gisa:

- Iraungita dauden gainerako kontratuen lizitazioa gauzatzea, eta, aipaturiko langileria-neu-rrien bitartez, kontratazio-prozeduren administrazio-lastertze eta -normalizazioa indartzea, halako moldez non kontratazio-prozedura horien egutegi bat eginen baita eta urgentek izanen baitira ez metatuta daudenak, baizik eta izaera hori dutenak.
- Erakunde autonomoaren egoera berrikustea, eta biartekoak paratu eta neurriak hartzea, erakunde horrek ere bete dezan alor honetako prozedura-araudia.

1.3. GASTUAREN KUDEAKETA

Gure borondatea lehen izan da, eta orain ere bada, gastua egitea horretarako dirua ez ezik aurretiazko aurrekontu izendatua ere edukita, eta araudia betez, zer esanik ez; baina administrazio-kudeaketaren blokeoek eta gure legegintzaldirako helburuek ekarri dutena da baliabideak egon badauden arren formalki ez egotea aurretiazko aurrekontu-izendapenik, edo kudeaketa-zailtasunak egotea dirulaguntzei edo txostenak aipatzen dituen izapidetze jakin batzuei dagokienez. Hori guztia nahi dugu zuzendu, honelako neurriak hartuz:

- Kontratazio-politika eta aurrekontu-kudeaketa Kontu-hartzaitzarekin planifikatzea, eta protokoloak eta bideak ezartzea komunikazio handiagoa eta hobea ahalbidetzearren udal-zerbitzuen artean, horien eta Kontu-hartzaitzaren artean eta horien guztien eta toki-gobernuko taldearen artean.
- Kontu-hartzaitzari giza baliabideekin eta baliabide materialekin laguntzea, izapidetze-prozesuak lasterragotzeko, halako moldez non beti egonen baita aurretiazko aurrekontu-izendapena.
- Dirulaguntzei buruzko udal-araudia berrantolatzea, eta dirulaguntzak exekutatzeko ez bakarrik aurrekontuen ikuspegitik, baizik eta ondoren datorren deialdien eta abarren administrazio-kudeaketaren ikuspegitik ere.

KONKLUSIOAK

- I. Kontuen Ganberaren gomendioak akuilu zaizkigu udal honek hobekizun dituen esparru ugarietan neurriak hartzeko; halatan, hiru legegintzaldi-urte hauetan hori lortzen joatea ahalbidetuko dutenak hartuko dira.
- II. Administrazio-zerbitzuak eta udal-langileria berrantolatuko ditugu eta eraikin berrirako obrak azkartuko ditugu, horrek langileei modua emanen dielako beren lana behar bezala egiteko, lan-giro egoki baterako moduko tokian eta bitartekoekin, horrela administrazio-kudeaketako baliabideen eraginkortasuna eta efizientzia erdiesteko.
- III. Barne-jardunerako eta dokumentu-normalizaziorako protokoloak ezarriko ditugu, gaur egun nahasmenean dauden zenbait funtzio eta kontratazio-espeditente automatizatzen lagunduko dutenak.
- IV. Administrazio-kudeaketako eta giza baliabideetako postu berri bat sortuko da, bertatik konpontze aldera, Idazkaritzari eta Kontu-hartzaitzari lagunduz eta langileria kudeatuz, gai honetan egun dauden arazoak.
- V. Dirulaguntzei dagokien oro berrantolatuko dugu, udal-araudiaren eguneratzetik hasita.
- VI. Laburbilduz, eskueran ditugun neurri guztiak hartzen joanen gara, Kontuen Ganberak adierazitako gomendioek betetzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau ESKATZEN DU:

Idazki hau onar dadin, eta udal honi buruzko behin betiko fiskalizazio-txostenaren amaierako balorazioan aintzat har dadin.

Corellan, 2024ko ekainaren 26an
Alkatea: Gorka García Izal

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskertzen ditugu Corellako alkateak 2024ko ekainaren 26an aurkezturiko alegazioak.

Alegazio horiek txostenaren edukian eragiten ez dutela deritzogu; izan ere, oro har, udalak eginko kudeaketaren zertzelada batzuei eta horrek gure txostenaren gomendioak betetzeko asmoz hartu nahi dituen neurriei buruzko azalpenak dira.

Behin-behineko txostenaren edukia 1.2 alegazioari dagokionez bakarrik aldatzen dugu. Hala-tan, txostenaren 35. orrialdean ohar bat txertatzen dugu, kirol-begiraleen kontratua dela-eta 2023an egindako esleipenari buruzkoa. Gazte-zentroaren garbiketarako kontratuaz denaz bezain-batean ez dugu txostena aldatu –horri buruzko aipamena egiten du halaber alegazio horrek–, zeren eta, udalari eskatu diogun informazio gehigarriaren arabera, nahiz eta 2022an kasuko kontratazio-espeditentea prestatzeko urrats batzuk egin ziren, espeditente hori ez baita izapidetu.

Bestetik, 1.3 alegazioari dagokionez, Ganbera honek egoki deritzo oroitarazteari ezen behar bezalako eta behar adinako kreditua gastu bat egin aurretik eduki beharra ez dela formalkeria hutsa, adierazten duelako udalaren erabakia dela eskueran dituen baliabideak xede jakin baterako erabiltzea, eta ez beste baterako. Horregatik daukate etenarazle-izaera kontu-hartzaitzak arrazoi horregatik adierazitako eragozpenek, eta horregatik ere dagokio udalbatzari, kasua bada, horri buruz egon litezkeen desadostasunak ebaztea.

Ganbera honek iritzi positiboa adierazten du alkateak azaldutako asmoaz; hots, gure txostenean adierazitako gomendioak inplementatzekoaz.

Aurkeztutako alegazioak behin betiko txostenean txertatu dira.

Iruñean, 2024ko uztailaren 1ean

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

